



Irailak 11
Ordiziako azoka
berezia

Arsuaga anaiak:
baserriaren aldeko
apustua

Esperientziaren
Eskola



Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 686 32 05 15

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 16

Izen ematea

Irailaren 9tik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.


VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK NEURRIRA



Maioz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

www.landrover.es



Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. EUROLAN 4x4



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Leire Telleria, Edurne Ayuso, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz eta Manex Aranburu.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Irailak 8: Zeraingo I. raid-a

Zaldien maratoniak 81 kilometro ditu

Datorren igandean, irailak 8, goizeko 10,30etan abiatuko da Zeraingo plazatik, Zeraingo I. raid-a. Zubietako Bugati zalditegiak zeraindarrekin elkarlanean antolatutako zaldien maratonia izango da. Altzaniako Partzuergoan edo Partzonerian izango da lasterketa. Narziso Arrillaga Bugati zalditegiko kideak eman dizkigu zaldien iraupen luzeko proba honen berri:

Beraz, irailaren 8an, goizeko 10,30etan Zeraingoan dugu zita.

Proba 10,30etan hasiko da baina zortzietarako hasiko da mugimendua. Lasterketa hasi aurretik albaitariak zaldiak nola dau den begiratu dute. Terrenoaren eta eguraldiaren arabera izaten da lasterketa bukatzeko behar duten denbora, baina nik uste 15-17 kilometro orduko abiaduran ibiliko direla zaldiak.

Ibilbidea nola antolatu duzue?

Plazatik atera eta 31 kilometroko ibilbide bat egingo dute lehenengo. Beunden beste kontrol bat pasatuko dute zaldiek. Beundatik atera 22-23 kilometroko beste buelta bat egingo dute. Zeraina itzuli aurretik beste kontrol bat egingo da. Guztira 81 kilometro izango dira. Bukaeran ere

beste kontrol bat egingo zaie zaldiei.

Zergatik egiten zaizkie hainbeste kontrol zaldiei?

Zaldiak zaintzeagatik. Lasterketa mota honen filosofia da, nahiz eta lasterketa bukatu handik ordu-erdia berriz lasterketan ateratzeko baldintzatan egotea. Herrenik gabe egotea, pultsazioak ondo eta arnasketan ondo egotea neurtzen dira besteak beste. Nahiz eta helmugako arrastora lehenengo iritsi ordu-erdi bateko epea dago albaitariarengana zaldia eramateko.

Raid proba zer den nola azalduko zenuke labur-labur?

Zaldien maratonia da. Pertsonen kasuan norberaren muga non dagoen norberak daki. Baina kasu honetan, zaldiaren gainean doanak zaldiari ahal duena baino gehiago exijitu liezaioke eta horregatik egiten dira hainbeste kontrol.

Zergatik etorri zarete Zubietatik Zeraina?

Zaldiz ibiltzeko paraje oso ona da. Terreno oso polita. Gero eta toki gutxiago dago, hainbeste kilometro egiteko asfaltorik edo hormigoirik gabe. Gure asmoa, raid proba hau urtero egitea da.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro



Josu Lopez kalean

Beasaingo euskal presoak uztailaren 18an libre utzi zuen Frantziako poliziak, Port Bouko mugan. Espainiako poliziaren esku utziko zutenaren beldur, hilabeteko gose greba egin zuen beasaindarrek. Gaueko 12ak aldean iritsi zen Beasaina eta lehenengo ongi-etorriaren ondoren, uztailaren 26an egin zioten omenaldia Beasaingo Loinazko San Martin plazan. Argazkian, Josu Lopez herriko hainbat erakundeetako kidea opariak ematen.

Patxi Eskitxabel ere etxean

Abuztuaren 17an irten zen Villabonako (Asturias) kartzelatik 22 urtez kartzela ezberdinetan egon ondoren. Atarian 65 legorretar eta donostiar zituen zain eta denak batera abiatu ziren Euskal Herrira. Lehen ongi etorria Legorretan egin zitzaion arratsaldeko 4ak aldean eta iluntzen Donostian izan zuen bigarrena. Lehen eguneko ongi etorriaren ondoren, abuztuaren 31n omenaldia egin zien herritarrek.



Luis Elorza idiazabaldarra lan istripuan hil zen Aceralian

Abuztuaren 21ean, Luis Elorza idiazabaldarra hil zen Olaberriako Aceralia enpresan izandako lan istripuan. 59 urte zituen Luis Elorzak eta mantenimenduan egiten zuen lan. ELA eta LAB sindikatuek gogor salatu zuten Elorzaren heriotza eta hurrengo egunean lantegia gelditu ez izana. No Sindicados taldeari egotzi diote horren errua. No Sindicados taldeak 7 ordezkari ditu Aceralian, CCOOK 4, LABek 2 eta UGTek 1.

LAB sindikatuaren protesta

Horrelako lan istripuetan gertatzen den bezala, uztailaren 23an bilkura ixila egin zuen LAB sindikatuak, argazkian ikus daitekeen bezala. Urte hasieratik Euskal Herrian 88 langile hil direla gogorarazi zuen LABek, eta zera galdetzen du: "noiz arte jarraitu behar dugu langileok bizia galtzen? Langile baten biziak hain gutxi balio al du inork ere ezer ez esateko? Noizko erantzun Instituzional bat Ibarretxe jauna, Azkarraga jauna, hainbeste heriotzaren aurrean? Noiz egin behar ditu gai honen inguruan adierazpen batzuk Josu Jon Imazek? Noizko minutuko isiluneak salatzeke hainbeste heriotza? Zer esango diote Luis Elorza Zabalaren sendiari?"



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker

gizarte ekintza



Bilore enpresak berriz onartu beharko ditu 28 langileak

Uztailaren 23an Donostiako epaitegi batek emandako erabakiaren arabera, Zaldibiako Bilore enpresak apirilean egingadako 28 kaleratzeak baliogabeak dira. Honela, zuzendaritzari, 28 langileok berriz ere berehala hartzeko agindu dio. Epailearen esanetan, "Bilore enpresako zuzendaritzak ez du frogatu kaleratzeak arrazoi sindikaletan oinarrituz egin ez zirenik". Langileak eta sindikatuak dena den, zuhur azaldu dira epailearen erabakiarekin.



Irizarrek 20 milioi euro inbertituko ditu Txinan

Ormaiztegiko Irizar enpresak Txinan daukan lantegian 20 milioi euroko kapital zabalkuntza egingo du, autobusak ekoizteko lantegi berriaren eraikuntza finantzatzeko. Eraikiko den lantegi horretan, zortzi metroko autobusak egingo dituzte.

Legazpiko Artzain eguna

Irailaren leian Legazpin ospatu zen Artzain egunean Goierriko hainbat artzain izan ziren sarituak. Gazta txapelketari dagokionean, 3. Zeraingo Maria Anjeles Iñurategi izan zen; 5. Olaberriko Mikel Etxezarreta; 8. Zegamako Jose Migel Azurmendi eta 9. Ataungo Josu Aldasoro. Haurrez osatutako epaimahaiak, Olaberriko Mikel Etxezarretari eman zion saria. Gipuzkoako artzainik onenaren saria azkenik, Zaldibiako Gerardo Garmendiari eman zioten.

Botilako sagardorik onena Begiristaingoa

Horrelaxe erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak joan zen asteburuan. Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegi-koek eraman zuten Foru Aldundiak sortu duen saria.

Zuzenketa

Oporren aurreko alean Zegama-Aizkorri maratoiko zerrendan izen bat gehiago sartzea ahaztu zitzaigun. Horrelako ahaleginaren ondoren ondo merezita, zuzenketa egitera gatoz. Izan ere, Ormaiztegiko Joxean Gorostidik 38. bukatu baitzuen maratoia, goierritarren artean 4.a, 05.20:51 denborarekin.

Goierriko futbolariak

Futbol Liga hasi den honetan, Goierriko hainbat futbolari gaztea talde berrietan ditugu. Esaterako, Josu Sarriegi lazkaotarra Eibar taldean arituko da aurtengo denboraldian, Bigarren mailan. Bigarren B mailako Real Union taldera berriz, beste hiru goierritar joan dira: Manex Sarriegi lazkaotarra, Jakes Gibelalde beasainarra eta Egoitz Sukia ataundarra.

Mikel Gaztañaga

Euskadiko selekzioarekin zilarrezko bi domina eskuratu zituen Valentzian jokaturako Espainiako pistako txapelketetan, puntuazioan eta scratch probetan.

Mikel Zarrabeitia Ordizian irabazle

Uztailaren 25ean jokatu zen Ordiziako proba Mikel Zarrabeitia bizkaitarrak irabazi zuen, nahiz eta erorikoa izan.

GERTU
aholkularitza

TXEkin programarako
homologatutako erakundea

etxekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



PALACIO ORIENTAL
JATETXE TXINARRA

東園酒家

✕ Kalitate eta zerbitzu hoberena
✕ Etxerako zerbitzua Goierri osoan

☎ 943 725 243 Labeaga, 33 H URRETXU

GARIAIAN GARAIKOA

✓ **Uztailean lehen egaztien migrazioak hasi ziren**, estei ondorengokoak alegia. Horien artean pasean doazenak sorbeltz arrunta, buztangorri argia, euli txori grisa, larre buztanikara, buztanikara horia, uhalde enara, euli txori beltza eta abar dira. Hauekin batera, miru beltza, zapelatz liztorjalea, zuhaitz belatza, belatza, mirotz zuria eta amiamokoak ikus daitezke. Batzuk goian aipatu ditugun arren jakin gaez pasako direnak urretxindorra, zozo papar zuria, buztanzuri arrunta, txio horia, antzandobi arrunta eta kuka direla besteak beste.

JAKIN BEHARREKOA

✓ Ba al zenekien dutxan minutuko 16 litro ur gastatzen ditugula eta 10 litro ur komuneko tanga usten dugun bakoitzeko?. Iturriko ur txorrotada murrizten duen aparailua muturrean jarriz aurreztuko genukeen ur portzentaia %54 koa izango litzateke. Interesgarria.

✓ Bularreko eta obarioetako minbiziari aurre egiteko erabiltzen den taxol izeneko substantzia ozeano Ba-rearen inguruan bizi den zuhaitz batetik lortzen da, hagin batetik (*Taxus brevifolia*) hain zuzen ere.

✓ Otsoak zakurren arbasoak dira. Milaka urte asko pasatu ondoren eta hain modu desberdinez hazten diren arren, oraindik ere espezie biologiko berekoak dira eta euren artean umeak eduki ditzakete.

Satitsuak esanikoa!

Egunsentiaren azaltze garai horretan zebilela, bere anaietariko bat, txarrantxa erdoituan, odolusturik, iltzatua ikusteak, gorputzeko berna guztiak mugiarazi zizkion eta izadiari oinarri-oinarrian zegokion duintasunezko heriotza bat aldarrikatzen hasi zitzaion bere buruari:

" Bai... bai bai, anai asko garela eta jada ohituak gaudela bizi iraun genezakeen denbora murriztean (2 urte eskas), horrelako oinazeak pairatzen.

Bai... bai bai, ugaztunik txikienak garela, apenas 9 cm isatsarekin, eta inork ez gaituela aintzakotzat hartzen. Izan ere zer daukagu esateko? Babesik gabeko 6 gr-ko satitsu apalak besterik ez gara, arriskurik gabe edonork ehiza gaitzake, hala nola azeri, basakatu, katajineta, lepazuri, lephori, erbinude arruntak... miru, zapelatz, belatz gorri, gabiraiak... suge gorri, eskulapioren sugeak... edo gaurkoan nire anaiari bezala antzandobi arruntak (Alcaudón dor-sirrojo gaztelera).

Gizakientzat ez gara jatekoak, baina ala eta guztiz ere garbitu nahi gaituzte, zuzenean edo zeharrera. Hauentzat denak berdina gara, bai larre lursaguak, zein basasaguak, zein lursagu gorriak, zein muxarrak... Zer esanik ez satitsuon senditartekoekin, denak satitsuak eta ez 'Xumel' edo 'Maiel', galdu berri ditudan ene bi lehengusuen izenak.

Xumel, Eulojioren baratzean zenbait in-sektu eta ornogabe jatetik sekulako tripa-ko minez seko geratu zen amaren altzoan.

**"Gurpil erraldoiaren
barrenean amildurik
garamatzen gizarte
honetan izadiak
duintasunezko herioa
aldarrikatzen du,
zentzuzko heriotzaz
akabatzea alegia"**



Orduraz geroztik bazterreraturik daukagu eremu hori, bertan ez da girorik, jada ez in-sektu ez zizare ez txori...ez dakit Eulojio baserritarra bera ere onez dabilen.

Maiel berriz, betitik motel antzea ibiltzen zen, segadoraz, hortz kamutsez ebakitako belartzietan batik bat, belar printzak azpitik zetorren belarrekin sortutako hezetasuna bitarte goroldioaren sorrera bultzatzen baitzuen, satitsu gizajoaren ibilaroak motel-duz. Honetaz gain, landare hesi edo setoen desagertzearekin geroz eta zailkiago jarri zitzaion bizitza... lehen, elorri, arantza beltz, astigar eta edo zuhador artean ezkututzen zen baina egun gu bizi garen esparruan segadoraren erabilerak hauekin bukatu du, traba egiten zuten nonbait. Lehen belardiak segaz moztzen ziren, raso eta garbi. Beren zzzzzzt-a entzutean adi jarri eta zelaia zeharkatzeko astia ematen zuen. Egoera estuenean ere igartzen ziharduen belarraren azpitik pasatzeko aukera zegoen, egun osoa zegoen ezkutuan etxera itzultzeko. Baina Maielek ezin izan zuen makina haiekin, ordu pare batean, burdinazko adarren zurrunbiloan belarraren jira eta bueltarekin plastikozko bola handi eta ilunean murgildua desagertu zen... horrelakoetan, bizirik atera ezker zelaia zeharkatzeak sekulako ikara ematen du, ez landarerik, ez belarrik...eta zapelatz zain.

Maielen berri 5 hilabetetara jakin genuen, izan ere nire aita ukuilu ataritik zebilela muturren parean utzi baitzuen sardeak bazterreratua behien siloa banatzen ari zirenean. Hantxe amaitu ziren Maiel lehengusuenak, seko hustu eta gogortua.

Nire anaiarenak berriz...antzandobiak zergatik amaitu ote zuen txarrantxa zaharkituan eskegitzen?, oraindik egon badaude elorri eta arantza beltzak baina beste garai batzuk dira nonbait! "

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Iraileko azoka berezia

Euskal jaien barruan, asteazkenean, irailak 11, izango da iraileko azoka berezia. Azoka berezietan bereziena izaten da irailekoa. Barazki, fruitu, ganadu eta gaztarik onenak Ordizian izango dira lehian. Goizeko azokaz gain, profesionalen arteko pilota partidak eta herrikirol jaialdia izango dira arratsalde partean.

Egitaraua jarraian duzue.

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien eskutik.

10:00etan: gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikoen erakus-



razki eta perretxiko lehiaketan sari banaketa.

12:30ean: Plaza Nagusian, ganadu eta lumagorri lehiaketan sari banaketa. Ondoren, bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilarien saioak.

13:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gazta lehiaketaren sari-banaketa.

1.partida: Beloki II - Medina / Salaberria - Balerdi; 2.partida: Koka - Barriola / Olaizola II - Pascual.

19:00etatik aurrera, euskal dantzen erakustaldia herriko kaxkoan Alkartasuna-Ohiaka taldearen eskutik.

19:30ean: Jose Migel Barandiaran plazan, herri kirolen



saioa: Donato Larretxea eta Floren Nazabal; Fernando Menizabalen hainbat herrikirol mota ezberdinen erakustaldia eskainiko du..

19:30etik 21:30era: kalejira trikitilariekin herriko kaxkoan.

Oharra: Ordizian...

Behi Esnea



Ohizko sukaldeko benetako zaporea lortzeko proposena

Zaporeduna

DASTATU BENETAKO BEHI ESNEAREN ZAPOREA

ETXETIK GERTU DUZU SALGAI



Behi Esnea produktoreak



Agerre baserria
Tel. 943-72 40 36
Urretxu, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00005/SS NF.A



Iztueta Elkarte
943-88 41 36 / 943-88 48 60
Lazkao, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00003/SS NF.A



Agote Etxeberri baserria
Au/Garin 17, Beasain
Gipuzkoa

Satitsuak esanikoa!

GARIAIAN GARAIKOA

✓ **Uztailean lehen egaztien migrazioak hasi ziren**, estei ondorengokoak alegia. Horien artean pasean doazenak sorbeltz arrunta, buztangorri argia, euli txori grisa, larre buztanikara, buztanikara horia, uhalde enara, euli txori beltza eta abar dira. Hauekin batera, miru beltza, zapelatz liztorjalea, zuhaitz belatza, belatza, mirotz zuria eta amiamokoak ikus daitezke. Batzuk goian aipatu ditugun arren jakin gaez pasako direnak urretxindorra, zozo papar zuria, buztanzuri arrunta, txio horia, antzandobi arrunta eta kuku direla besteak beste.

Egunsentiaren azaltze garai horretan zebilela, bere anaietariko bat, txarrantxa erdoituan, odolusturik, iltzatua ikusteak, gorputzeko berna guztiak mugiarazi zizkion eta izadiari oinarri-oinarrian zegokion duintasunezko heriotza bat aldarrikatzen hasi zitzaion bere buruari:

" Bai... bai bai, anai asko garela eta jada ohituak gaudela bizi iraun genezakeen denbora murriztean (2 urte eskas), horrelako oinazeak pairatzen.

Bai... bai bai, ugaztunik txikienak garela, apenas 9 cm isatsarekin, eta inork ez gaituela aintzakotzat hartzen. Izan ere zer daukagu esateko? Babesik gabeko 6 gr-ko satitsu apalak besterik ez gara, arriskurik gabe edonork ehiza gaitzake, hala nola azeri, basakatu, katajineta, lepazuri, lephori, erbinude arruntak... miru, zapelatz, belatz gorri, gabiraiak... suge gorri, eskulapioren sugeak... edo gaurkoan nire anaiari bezala antzandobi arruntak (Alcaudón dor-sirrojo gaztelaraz).

Gizakientzat ez gara jatekoak, baina ala



Ordur geroztik bazterreraturik daukagu eremu hori, bertan ez da girorik, jada ez intsektu ez zizare ez txori...ez dakit Eulojio baserritarra bera ere onez dabilen.

Maiel berriz, betitik motel antzea ibiltzen zen, segadoraz, hortz kamutsez ebakitako belartzietan batik bat, belar printzak azpitik zetorren belarrekin sortutako hezetasuna bitarte goroldioaren sorrera bultzatzen baitzuen, satitsu gizajoaren ibilaroak motel-duz. Honetaz gain, landare hesi edo setoen desagertzearekin geroz eta zailkiago jarri zitzaion bizitza... lehen, elorri, arantza beltz, astigar eta edo zuhandor artean ezkutatzen

9:00etan: Goiz Gresa antzerk-larien eskutik.

tza.

francako (Mallorca) 'Villa-franca Canta y Baila' dantza

Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa.

11:00etan: Meza Nagusia.

borja de la  *Jai zoriontsuak denoi!*

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak Oihalak

Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

Arantxa *Lentzeria*

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3

☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

EROSKI

KAFETEGIAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

☎ 943 88 27 93 **ORDIZIA**

 **KIXMI**

Artesania Opariak

K. Nagusia, 28

☎ 943 16 02 48

ORDIZIA

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

 **HIDALGO**

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua Berrikuntzak Kalitatea Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**

 **INPRIMATEGIA URDANETA**

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA

DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxe: 943 16 14 07 **ORDIZIA**

Iraileko azoka berezia

Euskal jaien barruan, asteazkenean, irailak 11, izango da iraileko azoka berezia. Azoka berezietan bereziena izaten da irailekoa. Barazki, fruitu, ganadu eta gaztarik onenak Ordizian izango dira lehian. Goizeko azokaz gain, profesionalen arteko pilota partidak eta herrikirol jaialdia izango dira arratsalde partean.

Egitaraua jarraian duzue.

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien eskutik.

10:00etan: gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikoen erakusketa eta lehiaketak.

12:00etan: Joxe Migel Barandiaran plazan, fruta, ba-



razki eta perretxiko lehiaketan sari banaketa.

12:30ean: Plaza Nagusian, ganadu eta lumagorri lehiaketan sari banaketa. Ondoren, bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilarien saioak.

13:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gazta lehiaketaren sari-banaketa.

17:30ean: Beti-Alai pilotalekuan, profesionalen esku-huskako pilota partidak:

1.partida: Beloki II - Medina / Salaberria - Balerdi; 2.partida: Koka - Barriola / Olaizola II - Pascual.

19:00etatik aurrera, euskal dantzen erakustaldia herriko kaxkoan Alkartasuna-Ohiaka taldearen eskutik.

19:30ean: Jose Migel Barandiaran plazan, herri kirolen erakustaldia: harri-jasotzen, Iñaki Perurena eta semea; aizkolarien buruz buruko



saioa: Donato Larretxea eta Floren Nazabal; Fernando Menizabalen hainbat herrikirol mota ezberdinen erakustaldia eskainiko du..

19:30etik 21:30era: kalejira trikitilariekin herriko kaxkoan.

Oharra: Ordiziarrei baserri-tar jantzi kalera ateratzeko deia egiten zaie.

ORLEGI
JAIK ONDO PASA

TABERNA
ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA

ORDIZIA BIDEO KLUBA

© 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1 **ORDIZIA**

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza
Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak
Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

JOSUNE
EDERGINTZA ETA LURRINDEGI ZENTRUA
J. M. Barandiaran pl., 3
☎ 943 88 28 88
ORDIZIA
● Mikropigmentazioa (perfilatuak, bekainak, begiak, ezpainak)
● Makilaje bereziak
● Depilazioa laserrarekin
● Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
Jai zoriontsuak!

oskarbi
oinetak
Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN
Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA

sugaar
TABERNA
Elkano kalea, 11 ORDIZIA 943161958
www.galeon.com/sugar


Egaña, Lujanbio, Irazu eta Maia bertsolarien eskutik 'Ordiziako euskal jaietako perian' bertso trama Herri Antzokian

Argi Berri elkarteak Ordiziako Udalarekin batera Euskal jaietan antolatzen duen bertso saioaren barruan, aurtenera saio berezia izango da. Bertso tramaren formula aukeratu dute, bertsolariak, Ordiziako azokan kokatuz. Irailaren 14an izango da saioa, Herri Antzokian, gaueko 10,30etan. Sarrera, 5 euro kostatuko da.

21 urte daramazki Argi Berri Elkarteak, Ordiziako Euskal jaietako larunbatean, bertso saioak antolatuz. Era ezberdinetako bertso saioak antolatu izan dituzte, beti ere berrikuntzaren bat sartuz. Bertsolari beterranoen saioa, gazteena, emakumezko bertsolariena... Aurtenera beste formula batekin datoz Argi Berri Elkarteak. Bertso trama antolatu dute.



Argazkiak: Bertsolari aldizkaria.

Iaz, Korrika Kulturalaren barruan Lazkaon egin zen bertso trama. Udan ere egin dira beste batzuk, eta orain, Ordiziako azokaraino iritsi da.

Momentu honetan puntapuntan dabilen 4 bertsolari izango dira Ordizian: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu eta Jon Maia. Guztiei, bertsotarako bidea emango diena, Josu Goikoetxea, ETB-1eko Hitzetik Hortzera saioko aurkezlea izango da.

Lau bertsolariak euskal jaietako Ordiziako azokan kokatuko dira. Goizetik iluntzera bitartean, azoka egunean izaten diren ekitaldi eta elementu ezberdinetan murgilduko dira bertsolariak. Ganadu azoka, gazta enkantea, pilota partiduak... gai ezberdin ugari.

Bertsolarien ikuspuntutik irailako Ordiziako azoka bereziaren erretratua ikusteko aukera izango da beraz, irailaren 14an, Herri Antzokian, gaueko 10,30etan.

Lazkao Txiki XI. Bertsopaper lehiaketako emaitzak

Goierriko Bertso eskolak Ordiziako Udalaren laguntzaz antolatzen duen Bertsopaper lehiaketan hauek izan dira aurtengo irabazleak:

Gaztetxoetan (13 urte artekoak): 1. Aritz Garin (Billabona), 2. Kepa Matxain (Añorga), 3. Hodei Iruretagoiena (Zarautz).

Gazteetan (14-18 urte bitartekoak): 1. Irati Goikoetxea (Beasain), 2. Oier Aizpurua (Zarautz), 3. Uxue Alberdi (Elgoibar).

Helduetan: 1. Alaitz Sarasola (Ordizia), 2. Urko Egaña (Azpeitia), 3. Ekaitz Goikoetxea (Beasain).

Epaimahaia Manu Olano, Eusebio Igartzabal eta Izar Sarriegik osatu zuten.

KAFEA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Maingileak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



BIÑASPRE
ESTETIKA ZENTRUA

Aurpegiko tratamendu pertsonalizatuak
Gorputzeko tratamenduak
Depilazio elektrikoa (minik gabe)

LASER DEPILAZIOA

K. Nagusia, 8 ☎ 943 88 13 37 ORDIZIA

LURRINDEGIA
OPARIK

Juan Inazio Begiristain bertsolariari agur

Azken urteetan, euskal jaietako azoka berezian, eguerdi partean, Garagartza plazan izaten den oholtzan, besteak beste, Juan Inazio Begiristain bertsolaria ikusi eta entzun ahal izan dugu. Aurten ez da horrelakorik izango, uztailaren 22an agur esan baitzigun betirako Ataungo bertsolari artzainak.

Aralarko artzain txabolaren ondoan hilik aurkitu zuten Juan Inazio Begiristain uztailaren 22an. San Isidro egunean igo zen Aralarra. Aurten gainera txabola estreinatzen zuten. 48 urte zituen.

Ataun Aiako Ibarondo baserrian jaio zen Begiristain 1953ko abenduaren 1ean. Bost urterekin hasi zen eskolan eta 14 urtera bitartean Arazeli Garcia izan zuen maistra. Bertso giroa etxean ezagutu zuen. Aita eta osaba bertsozale amorratuak zituen eta irratiz bertso saio eta txapelketak jarraitzen zituen. Irratiari esker bertsozale izan dela esan izan du behin baino gehiagotan ataundarrak. Uztapide zuen eredu Begiristainek. Luis Irigoien apaiz oiartzuarrarekin egin zuen debuta, 12-13 urterekin, eskolatik Hondarribiara egin zuten txangoan.

Lazkaoko tailer batean lanean hasi zen 15 urterekin eta 26 urte zituela langabezian gelditu zen. Orduan erabaki



Argazkia: Bertsolari aldizkaria.

zuen mendira artzain joatea. Anaiarekin batera zeraman ofizioa.

18 urterekin Gabiriako

Osinalde bertso sariketan parte hartu zuen. Bertsolari Gazteenaren saria eman zioten ataundarrari. Santa Ageda eskean aitari erreleboa hartu

zion garai hartan. Iraileko Ordiziako azokako saioan ere aritzen zen. Txapelketetan dena den, nahikoa motel ibiltzen zen. 1977an Osinalde saria irabazi zuen. Artxanberri sarian finalista izan zen behin eta Xenpelar sarian ere bai.

Umorezko gaietan maisua zen Begiristain. Bere umorea eta ateraldiak ospetsuak dira bertsolarien artean. Beheko koadrotxoan, bi adibide bildu ditugu.

Bertsolari Egunean Goierriko Bertsolari taldearekin bertsoan aritzen zen. Beti ere umorezko gaiak hartzen zituen ardatz Goierriko taldeak.

Tipo jatorra (Joan Inazio Begiristainek kontatua)

Iaz Ordiziara joateko Zeberio eta biok "bueno, etorri hai hamabitako" eta "bale".

Guk etxean ganaduekin lan dezente genian, ximaurra ateratzen eta hola, eta berandu xamar joan ninduan. Ordubata ere izango huan, eta ordurako peria itxita eta jendea alde egin da.

- Garai earren etorri haiz!- esan zidaan.

Hitzemanda gendean hamabitako kioskoan bertso saioska bat egiteko. Baxoerdi bana hartu eta "jun egin beharko diau behintzat kiosko ondoraino".

Ezta inor ere, ebia goian behean gainera.

- Ze ein behar diau ba orain? - esan zidaan Zeberio.

- Honezkero, etorri geanez, kobrau beharko diau zerbait behintzat.

Hala udaletxera joan gintuan. Han bertsoen martxa ematen duana erdaldun rubio bat dek.

- ¿Que, habeis terminado?- galdetu ziguan rubioak.

- ¿Terminar?, si no hemos empezado. Hemos

venido a cobrar.

- Ah!, habeis hecho bien. Con el tiempo que hace habeis hecho bien.

Harritu gintuan pixka bat, baina gu gustura.

Itukina ohearen parean (Eusebio Igartzabalek kontatua)

Zaldibin bastante aldiz bildu izan gaituk Goierriko talde bat, garai hartan ostegunero, eta bilera haietako batean keja eta keja ari huan Begiristain. Oso udaberri euritsua ari huan eta bastante nazkatuta zegoen euriarekin.

- Dios, hau dek egualdie hau! Eurie, eurie ta eurie, egunero eurie. Kaguen!, gainea txabolan itukina ein zaiak eta justu ohean pare-paren. Hura kentzeko teilatura igotzeko ere ez dik eiten girorik... redios!...

Hala, handik hamabost egunera berriz etorri zanean segituan akordatu ninduan bere itukinarekin.

- Ze Begiristain, itukin hura konpondu al dek?

- Ez, ohea aldatua diat lekuz.

'Bertsolari' aldizkaritik hartuak

Olagi Sagardotegia

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

m Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Joxe Ramon eta Xabier Arsuaga Ordiziako Arramendi baserrikoak:

"Txapelik handiena egindako gaztak ondo saltzea da"

Ez dira asko gaur egun baserrian geratu eta bertan lan egitetik bizitzea erabakitzen duten gazteak. Ordiziako Arramendi baserrian horretan ari dira Arsuaga anaiak: 29 urteko Joxe Ramon eta 24 urteko Xabier. Joxe Ramon esne-behiez arduratzen da eta Xabier artaldeaz. Joxe Ramonek azaldu digu beraien langintzaren berri.

Gaur egun ez da oso ohikoa gazteek baserriari eustea. Zuek berriz baserriaren aldeko apustua egin duzue.

Banaka batzuk bagara, baina, geroz eta gutxiago. Oso lan lotua da eta gazteek nahiago izaten dute aste bukaerak libre izan eta beste bizimodu bat eramatea. Gu hemen jaio ginen, gustatu egiten zaigu eta hementxe jarraitzen dugu.



Xabier eta Joxe Ramon Arsuaga Arramendiko ukuilu berriaren aurrean.

Beste gazte batzuk kalean jaio eta baserritik bizitzeko arazoak dituzte. Baserriak ezin erosi...

Bai, bat edo beste badaude, baina denetik dago. Baserria kaletik oso desberdina ikusten da, badira zenbait kaletik baserrira igo eta han lanean hasita, ikusten dutenak ez dela beraiek espero zutena. Horrelako kasuak ere ezagutu ditut.

Oporretarako aukera handirik ez duzue izango.

Antolatuz gero posible da. Gu gainera bi anaia izanda txandaka hartzen ditugu. Fabrikari bezala hilabete jarraian hartzerik ez dugu baina moldatzen gara. Lan gutxien dagoen garaian aprobetxatzen dugu astebete edo 10 egun hartzeko.

Ordizian baserritik ez zarete asko biziko.

Gu gara bakarrik. Orain beste gazte bat, Joseba Intxausti ardiekin ari da lanean.

Zuek ardiekin eta behiekin lan egiten duzue.

Bai guk esne behiak ditugu alde batetik eta bestetik ardiak gazta egiteko. Bi anaia garenez, bat behiez arduratzen da eta bestea ardiez. Horrela oso ondo moldatzen gara. Gurasoen laguntza ere izaten dugu.

Lehen behi esnea poltsetan zuzenean kalean saltzen genuen baina orain utzi egin dugu eta dena zentralera saltzen dugu, horrela lotura gutxiago dugu. Ardiekin, berriz, uda partean lasaiago ibiltzen gara, baina, neguan lotura handia izaten dute. Arkume guztiak batera jaiotzen dira eta lan asko egin behar izaten da. Aurreko urteetan udan Aralarrera igo izan ditugu, baina, aurtun euri asko egin duenez, eta nahiko jan dagoenez, bertan eduki ditugu.

Zer desberdintasun dago ardiak mendira eraman edo ez?

Mendian dabilen ardia beti sanoago egoten da. Alturan



LUBERRI
Loradenda

- ✓ Andregai lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Ezkontza opariak

Euskal jai zoriontsuak!

J.M. Barandiaran, 3 ☎ 943 16 04 79 ORDIZIA



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



Itziarko industrial-
dea, E-13

ITZIAR

☎ 943 19 93 00/30

Faxa: 943 19 92 70

- Pentsugintza
- Ongarri eta haziak
- Lan tresnak
- Plastikoak
- ARDIENTZAT pentsu gama berezia

negua gogorragoa denez, bakteriak-eta hil egiten dira eta ardiek gaitz gutxiago hartzen dituzte eta negurako ere defentsa gehiagorekin etortzen dira. Behean daudenei medikamendu gehiago eman beharra izaten da.

Aurrerakuntzak ere sartu behar-ko zenituzten?

Bai, behietan jizteko makina-eta aspaliditik ditugu. Ardie-tan, berriz, 1998an ukuilu be-rria egin genuen eta dena mo-dernizatu genuen, jana ema-teko zintak, jizteko gela, gaz-ta egiteko prentsa, kamara etabarrak. Gazta egiteko sani-dade eta garbitasun aldetik horiek denak beharrezkoak dira. Egin behar denean diru asko da eta kosta egiten da, baina gero, lan egiteko ga-raian, nabari da.

Nolako gazta egiten duzue?

Horretan anaia aritzen da. Bi eratara egiten ditu, bezero guztien gustura egiteko. Ga-tzagi naturalarekin bakarrik fuerteagoa egiten du eta ga-tzagi naturala eta botikakoa nahastuta xuabegoa ateratzen da.

Ordiziako gazta txapelketan ere parte hartzen duzue.

Bai, urtero parte hartzen du-



gu. Ordizian, Legazpin eta in-guruko lehiaketetan.

Txapelketa gauza polita da. Saria irabazten baduzu gustura geratzen zara eta Or-diziakoa irabaztea zer esanik ez. Baina azken batean inpor-tanteena egiten dituzun gaz-tak ondo saltzea da. Hori da txapelik handiena.

Asteazkenetako azokan ere iza-ten zarete. Gazta ondo saltzen al da?

Bai, oso ondo. Egindako guz-tia inongo arazorik gabe sal-tzen dugu. Asteazkenetan eta orain ostiral arratsaldeetan ere joaten gara. Gazta eta behi esnea poltsatan saltzen dugu. Inguruko beste zenbait azoketara ere joaten gara. Baina, pixka bat kontrolatu beharra dago, urte guztian gazta izateko. Urte guztiko

bezeroentzat gazta eduki be-harra dago eta ez da komeni denak batera saltzea. Orduan, gutxi dugunean ez gara azo-ketara joaten.

Zer moduz doa ostiral arratsal-deetako azoka?

Neguan iruditzen zait jendea ibiliko dela, baina, udakoak, betez ere abuztukoak oso po-break izan dira. Eta normala da, udan jendea kanpora ate-ratzen da. Oraindik oso berria denez, zaila da esateko arra-kasta izango duen edo ez bai-na niri iruditzen zait irailetik aurrera berriro jendea hasiko dela.

Aurtengo udan eguraldi txarra egin al du zuentzat?

Guretzat hau lehortea baino hobea da. Animalietatik bizi garenok janaria behar dugu.

Nahiz eta euriarekin belar as-ko usteldu asko hazten da. Hori bai, baratzetarako eta fruituetarako eguraldi txarra egin du eta hondartzara joan nahi izaten dutenentzat zer esanik ez.

Nola dago baserriaren egoera? Nahiko laguntza ba al duzue?


Europako lege berriak dato-zela eta hainbeste kontu en-tzuten dira. Nik hortaz ez dut gehiegi ulertzen. Orain dela gutxi ingurugiro laguntzak ematen hasi ziren eta hori gu-ri ondo etortzen zaigu. Terre-noak ditugunentzat ondo da-go, baina terreno gutxiarekin behiak ukuiluan dituztenen-tzat ez dira iristen. Gu orain-goz ez gaude laguntzengatik kexatzeko moduan. Artzain-tzarako ere laguntza politik daude.

Etorkizuna nola ikusten duzue?

Ez da erraza asmatzea. Behientzat ez da garai ona izan, orain arte esnearen pre-zioa beheraka joan da, orain badirudi geratu dela. Ardie-kin, gaztaren 'boom' bat da-go eta etorkizun ona duela di-rudi. Nik uste dut behietatik bizi nahi duenak gero ere au-dera izango duela behar beza-la profesionalizatuta.

MUGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrek: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

NEKAZARITZA ZELAETA S.L.

Carlos Diarbide Allizu



STIHL

VIKING



BCS



F-G

Yanmar

COMECA - SABO

Jonsered

DEUTZ - SAME

Ormaiztegi-Beasain errep. (Tejeria zaharra)

ORMAIZTEGI

Tfnoa: 943 16 15 15

Faxa: 943 88 24 73

55 urtetik gorakoentzako ikasketak Goierrin Esperientziaren Eskola

az jarri zen martxan Esperientziaren Eskola. Migel Calvillo ordiziarra izan zen ekimenaren bultzatzailea. Goiekira jo, honek oniritzia eman eta Matia Fundazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzaren laguntzaz, jarri zen abian. Aurten bigarren ikasturtea izango da. Baina zer da Esperientziaren Eskola?

Gazte garaian oinarritzko formakuntza jasotzerik izan ez zuten 55 urtetik gorakoei zuzenduriko eskola da. "Orain aukera gure eskuetan dugu. Gure eskubidea daukagu. Ikasten eta gure kideei gure bizitzako esperientziak transmititzen gozatzen dugu", dio Migel Calvillo ordiziarrak, Esperientziaren Eskolaren bultzatzaileak.

Bizitza kalitate hobea eskaini nahi da. "Garapen pertsonala eta bizitza sozialean eta kulturalean partehartze aktiboa bideratzen duen proposamena da. Irakaskuntza malgu, ireki eta sortzailea da". Zahartzarora osasunez eta gaitasunez bizitzea, gizartean paper aktiboagoa izatea eta unibertsitate marko batean belaunaldi arteko topaketa gune bat irekitzea izango lirateke helburu nagusiak. "Gaur egungo gizartean helduak gero eta pisu handiagoa har-



Jose Luis Lasa filosofiako irakaslea, Jose Manuel Etxebeste, Paula Saizar, Jose Garaialde eta Maria Jesus Garmendia ikasleak eta Migel Calvillo Esperientziaren Eskolaren bultzatzailea.

tzen ari dira. Hau da, lan mundu produktiboa utzi dutenak, baina bizitza aktiboaren dinamikan barneraturik jarraitzeko gaitasun osoarekin daudenak. Kulturak, hezkuntzak eta formakuntzak, partehartzea, babesa... errazten dituen jarrerak eta jokaerak estimulatzeko ditu. Helduok

Migel Calvillo:
"Gaur egungo gizartean helduak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira"

aurkitzen garen egoera berri honen motore garrantzitsua formakuntza oinarri duen aisialdia izan daiteke".

Migel Calvilloren esanetan, "hemendik 5 urtera gauza normala izango da Esperientziaren Eskola. Egitura bezala, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren barruan sartzea aztertzen ari gara".

Bigarren Esperientziaren Eskola urrian hasiko da, ekainera bitartean. Astean hiru egunez, egunean hiru orduz izango da ikastaroa. Aurten Urola Garaikoek ere aukera izango dute bertan parte hartzeko.

Ikasleak pozik

Iazko ikasturtean parte hartu zuten ikasle eta irakasleak gustura daude esperientziarekin. Irakasle eta ikasleak bildu ditugu, beraien esperientzia kontatzeko.

Joxe Manuel Etxebeste oso gustura gelditu da eskolarekin. "Ez genuen ezagutzen zer izango ote zen. Ikastaroa bukatutako gehien-gehienok, guztiok ez esateagatik, beste zerbaitetan segitzeko asmoa daukagu. Guretzat oso esperientzia berezia izan da. 10-12 gai ezberdin landu ditugu eta gure ikuspegitik oso garrantzitsua izan da, irakasleak gure mailan jarri direla eta erraza egin zaigu. Gu



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Ikasleak: "Ondorengo bizimodurako prestakuntza izan da"

aberastu egin gara eta irakasleak ere aberastu egin direla esan digute. Laguntasunean asko sakondu dugu. Konfiantza osoarekin aritu gara gure gauzak azaltzen eta oso ondo bukatu dugu. Nik nire lagunei hala esaten diet: hona gelditu gabe ezin direla gelditu".

Paula Saizarren ustez, "gure denbora antolatzen erakutsi digute. Lehen denbora oso bat izaten genuen, baina guretzat denbora oso txiki bat. Denbora hori antolatzen eta norbera jabe izaten erakutsi digute".

Jose Garaialdek esan duenez, "foiletoa ikusita, interesgarria iruditu zitzaidan. Ni kultura aldetik nahikoa interesatua egon naiz beti eta egoki ikusi nuen. Horrekin batera, neure denbora betetzea ere ondo etorriko zitzaidala pentsatzen nuen. Garpenean kulturala ondo etorri zait eta elkarbizitza ere oso ona izan dugu. Nire helburuak oso ondo bete dira. Ni gustura nago eta nire inguruko guztiak ere bai".

Maria Jesus Garmendiak zera dio: "beti izan dut ikasleko gogo. Beste pertsonen hartuemanak izatea ere oso aberatsa da. Kezka batekin, baina probatzea pentsatu

nuen. Oso gustura ibili naiz. Oso aberatsa izan da gai guztietan. Denbora betetzeko ere oso ondo etorri da. Bakoitzaren esperientziaren berri beste ematea ere oso aberatsa izaten da. Berriz ere gustura egingo nuke. Norbera aberasten bada, ingurua ere bai".

Paula Saizarrek adierazi duenez, "gaiak berriak izan dira. Filosofia, psikologia, zuzenbidea... inoiz ikasi gabeko gaiak izan dira. Gizonezkoak eta emakumezkoak elkarrekin egotea ere aberagarria izan da. Gu gure garaian, beti banatuta ibiltzen ginen".

Jose Manuel Etxebesteren esanetan, ondorengo bizimodurako prestakuntza izan da: "gu orain arte behartu gara ikastera egin behar genuen lana, egin behar genuen bizimoduaren arabera. Orain hemendik aurrera behar duguna erabat ezberdina da eta eman dizkiguten gaiak ere horrelakoak izan dira, behar ditugun gauzatarako erakutsi digute. Oso osagarria izan da. Ondorengo bizimodurako prestakuntza izan da".

Erabat gaztetuta sentitu dira ikasleak. Adibidez, informatikaren munduan ere sartu dira. Ordenadorearen aurrean jarri, interneten nabigatu... garai berrietara egokitu dira. Irteerak ere egin dituzte CAF ikustera joan dira, Segurara, Zeraina, Donostiara, perretxiko bila.... Ikasketa amaierako bazkaria egin dute... Goierri ikasle gazteekin ere harréma-



nak izan dituzte, atsedean garaietan.

Lehenengo Esperientzia Eskola honen balorazioa oso positiboa egin dute ikasleek. Behin ikasturtea amaituta, datorren ikasturterako ere ikasten jarraitzeko asmoarekin daude. Mintegi edo seminario antzeko zerbait antolatu nahi dute.

Lerro hauen bitartez, 55 urtetik gorako goierritarrak animatu nahi dituzte Esperientziaren Eskolan parte hartzeko.

Irakasleak ere pozik

Jose Luis Lasa ordiziarra izan da irakasleetarik bat. Barentzat ere esperientzia berria izan da ikasle hain helduak izatea. "35 urte eskolak ematen aritu naiz Goierri eta La Sallen. Gai guztiak ondo prestatu ditugu irakasle guztiok aurretik. Lehenengo egunean, nahiko urduri joan nintzen Esperientziaren Eskolara. Jende berria, heldua... Ez

Jose Luis Lasa:
"irakasleok
ahalegina egin
dugu ikasleen
mailan jartzeko"

dut horrelako esperientziarik izan: nolako arreta jartzen zuten ikasleek! Jende honek jakintza gosa handia dauka. Gehienek ez dute sekula ikasi eta jakin nahia izugarria izan da. Galderak, eztabaidak... oso aberatsa izan da. Norberak bere iritzia eman du, inongo lotsarik gabe".

Irakasleak ikasleen mailan jartzeko ahalegin berezia egin dute Lasak esan digunez: "irakasleok ahalegina egin dugu ikasleen mailan jartzeko. Azkeneko gaia, zientzia, teknologia eta gizartea izan da. Zer izango ote zen, baina txoratuta atera dira. Ez da ikasketa maila berezirik behar Esperientziaren Eskolara etortzeko. Jendeak gaiak ulertu egin ditu".

Norberaren iritzia beldurrik gabe ematea oso garrantzitsua dela ikusi dute ikasleek. "Nortasuna baloratzea ere oso garrantzitsua da. Autostima ere askotan bajua izaten da eta eskola honek asko lagundu du", dio Lasak.

Gaiak erdaraz eman dira, ikasleak euskal eta erdal hiztunak zirelako. "Bi talde sortuko balira, posible izango litzateke euskaraz eta gazteleeraz ematea. Dena den, irakasle guztiak euskaraz bazekitenez, ez dugu arazorik izan euskaraz espresatzeko", gaineratu du ordiziarrek.

Aurtengo izena emateko epea amaitu bada ere, informazio gehiago nahi duenak 943161537 eta 943160970 telefonoak ditu eskura.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Pedro Jose Landa Gutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe

☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN



Lierniko festak

Uda amaitzeaz dagoenean izaten dira Lierni auzoko festak eta aurtengoan ere egitarau bete izango da asteburu honetan, honako hau hain zuzen ere:

Irailak 7 larunbata:

Eguerdiko 12etan emango zaie aurtengo festei hasiera, suziariak bota eta kanpaiak joaz.

Arratsaldeko 5,30etan izango du jaiak jarraipena herriko plazan, txikiek izango dute haur jolasaz gozatzeo aukera paregabea.

Iluntzeko 9etan berriz, auzo afaria Lierniko Mujika jatetxean, Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaiturik. Afari ondoreneko musika ere trikitilari bikote honen eskuetik etorriko da.

Irailak 8, igandea:

Lierniko Amaren eguna du. Egun honetako egitaraua bete-betea izango da.

Goizeko 9etan Segurako txistularien goizeresia.

Goizeko 9,30etan hasiko



Lierniko txirrindulari proba.

da XXI. Lierniko txirrindulari proba. Gazte mailako txirrindulari proba honek bi zati ditu, lehenengo zatiak ordu eta erdi inguruko ibilbidea izango du eta bigarrena erlojuaren aurkako proba Seguratik Liernira bitartean.

Goizeko 10etan hasi eta egun osoan zehar Mutiloko Aitz-buru elkarteak antolatzen duen XXI. usakume tiraketa izango da.

Eguerdiko 12,30etan Meza izango da ermitan.

Eguerdiko 1,15etan toka



Motozerrarekin eta egurrarekin irudiak egiten.

lehiaketa plazan. Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaituko dute eguerdi aldea.

Aurretik esan bezala usakume tiraketak jarraipena izango du arratsaldean baina horrekin batera **arratsaldeko 6,30etan** Zurgai herri kirol taldearen eskutik, erakustaldi bikaina ikusteko aukera izango da.

Eta eguna amaitzeko Andonegi eta Ostolaza trikitilariak erromeria izango da.

Hauxe da ba aurtengo, aurtengo udan izan ez den bezalako eguna izatea besterik ez zaigu falta. Hala izango ahal da!

Iñaki Ugalde

Arantzazura erromesaldia

Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean izan zen Arantzazurako urteroko erromesaldia Zerain eta Segurarekin batera. Larunbatean mendiz, oso giro onarekin ez baina, ibilbidea egin zutenak izan ziren.

Ingeles ikastaroak

Irailaren 16tik aurrera ingelesa ikasteko nahiz sakontzeko ikastaroak martxan jarri nahi dira herrian. Orintxe herrira bizitzera etorri den Penny Alzuak emango ditu eskola hauek. Asotelehena, asteazkena edo ostiralean izan beharko lukete eskola hauek, goizez, arratsaldeaz nahiz gauez. Nahi duen guztiak Gerriko auzoko 2. zenbakira joan besterik ez dauka Pennyrekin harremanetan jartzeko.

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Ikasturte berria abian

Oporren amaiera iritsi da gehienontzako eta horrekin batera baita ikasturte berriaren hasiera ere. Lazkaoko San Benito ikastolan ere kurtso berria hastear dago. Irailaren 9an egin beharko dute buelta ikastolako ikasle guztiak. Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren mailakoek goizeko 9etarako joan behar dute. Lehen hezkuntzako bostgarren eta seigarren kurtsokoek 8,30etarako eta nagusienak,

DBH (Derrigorrezko bigarren hezkuntza) eta Batxilergokoak, goizeko 8etarako ikastolan egon beharko dute.

Baina hori bai, hasiera ari-nagoa izateko ikasle guztiak 12:30ean irtengo dira ikastolatik lehen astean.

Eta ikasturte berriarekin batera, San Benito ikastolako garraio eta jantoki zerbitzuak hasiko dira martxan. Jantokira joan nahi dutenek, ordea, aurrez eman beharko dute izena ikastolan bertan.

Kiroldegian ere ikasturte berria

Irailaren lehenengotik, ikasturte osoan mantenduko den ordutegia hasi du Joxe Migel Barandiaran kiroldegia. Orain astelehenetik ostiralera egun osoan egongo da zabalik, goizeko 7etatik arratseko 9ak bitartean. Larunbatetan, goizez 9etatik 1era; eta arratsalde 3,30etatik 7,45etara zabalduko dute. Eta igandean, berriz, egun erdiz baino ez dute irekiko: goizez, 9etatik 1era bitartean.

Eta ikasturte berriarekin batera, urte osoko kirol ekintzak ere martxan jarri ditu kiroldegia. Aurtengoan ohiko ikastaroak izango dira adin guztietako jendearentzat. Helduenek hirugarren adinerako prestatutako gimnasia egin ahalko dute. Gainera mantenimendua, aerobik, igeriketa eta karate edo kenpo ikastaroak ere egongo dira ikasturte osoan zehar. Ikastaro hauek irailaren 16an hasiko dira, baina joateko asmoa duten guztiak aurrez eman beharko dute izena.

Oihana Sarasola

Kizkitzako erromeria, irailaren 8an

Kizkitzako Amaren eguna ospatuko da aurten ere, irailaren 8an, Kizkitzako ermitaren inguruan. Ohiko egitaraua prest dago dagoeneko.

Eguerdiko 12etan meza izango da. Ondoren, bertsolari gazteen jarduna eta trikitilariekin erromeria izango dira egunaren osagai.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua eta karta.

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierrirako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

Urkiko jaiak

Irailak 14, larunbata: Gurutze Deunaren eguna:

11:00etan: Meza nagusia.
12:00etan: Hamaiketakoa, Jauregi eta Berasategi trikitilariak alaiturik.
19:00etan: Suziri jaurtiketa festak hasteko.
21:00etan: Lagunarteko afa-ria elkartean.
23:00etan: XX. Urkiko mus txapelketa herrikoa.
23:00etan: Erromeria Jauregi eta Berasategi trikitilariak, goizaldera arte.



Iñaki Azurmendi.

Irailak 15, igandea:

10:00etan: Meza nagusia.
11:00etan: Hamaiketakoa, Jauregi eta Berasategi trikitilariak alaiturik.

14:30ean: Bazkaria.
19:00etan: Aizkora apustua: Olasagasti, Arrospide, Azurmendi eta Ugarteburu.
20:00etan: Erromeria Jauregi eta Berasategi trikitilariak.

Oharrak

- Jai guztietan, antxuma bat zozketatuko da.
- Larunbateko afarira edo igandeko bazkarira joan nahi duzuenok, irailak 12 baino lehen 943889367 telefono zenbakira deitu behar duzue.

Herriko festak irailaren 20tik 22ra

Iaz herriko jaien data aldatu ondoren, aurtun ere irailaren 20tik 22ra izango dira herriko jai nagusiak. Egitaraua aurreratzeko prest gaude dagoeneko:

Irailak 20, ostirala:

16:30ean: Zinta karrera.
18:30ean: Futbol derbia: Itsasondo - Arama.
21:00etan: Herri afaria.
Ondoren, erromeria goizaldera arte.

Irailak 21, larunbata:

10:00etan: Altxagarateko igoera.
12:00etan: Hamaiketakoa.
Ondoren, soka dantza.

18:00etan: Herri kirolak.
23:00etan: Kontzertua.
24:00etan: Burduntziaren hasiera.
Mozorro gaua (sari bereziak egongo dira).

Irailak 22, igandea:

11:00etan: Toka txapelketa.
14:00etan: Bazkari herrikoa, sagardo dastaketarekin.
19:00etan: Patata tortila txapelketaren hasiera.
21:30ean: Sukaldari txapelketaren sari banaketa.
23:00etan: Kontzertua.
Egun osoan herrian zehar txaranga ibiliko da eta haurrentzat jolas parkea izango da.

Herri eskolan ikasturte hasiera

Irailaren 9an emango zaio hasiera ikasturte berriari. Hilabete honetan zehar haurrek ordutegi berezia izango dute: haur hezkuntzakoei 9etatik 12:15era; eta lehen hezkuntzakoei, berriz, 9etatik 13:00ak bitartean. Urrik aurrera goiz eta arratsalde zehar siko dira lanean. Aipatu behar da, iaz probisionalki martxan jarri zen jangelak, aurtun, eskolan bertan izango

duela jarraipena, prestatu berri den jangela batean.

Ama Birjinaren eguneko irabazleak

Abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren eguneko ospakizunetan, toka txapelketako irabazlea Iñaxio Garmendia izan zen. Mus txapelketan, berriz, Joxe M. Dorronsorok eta Luix Ibarpurenek osaturiko bikotea izan genuen garaile.

Batzorde eragilearen bilerak

Batzorde eragileak ere eten du bere oporraldia. Irailaren 2an, iluntzeko 7,30etan, izango da Udaletxean oporretatik bueltan lehenengo bilera, eta hortik aurrera astelehenero. Jakizue bilera irekiak direla eta parte hartzeraz gonbidatuak zaudetela.

Leire Telleria - Edurne Ayuso

ZUHAIZKI S. A. L. ZURGINDEGIA



- ✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar
- ✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

ARAMAKO TABERNA berriro zabalik!

Menuak

Asteburuetako menuak

Karta

☎ 943 888 953
Aramako plaza ARAMA



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

San Bartolomeak amaitu eta denok lanera

Herriko jaiak amaitu bezain laster, zegamarrak lanera abiatu gara. Abuztuaren 23, 24, 25, 26 eta 31n izan dira aurten Zegamako San Bartolome Jaiak euritan burutu baziren ere, giro ederra izan zenik ezin ukatu. Goizean goiz, **Txirrindu frogak** egin ziren herriko haurren artean eta ondoren Apeaderora Igoera egin zen. Txupinazoa bota aurretik lan bikaina egin zuten herriko txirrindulariek; hona hemen emaitzak: 7 urtetik beherakoak: Joseba De la Hera. 7, 8 eta 9 urtekoak: Unai Atxa; 10, 11 urtekoak: Joseba Olaziregi; 12, 13 urtekoak: Joseba Arakama eta Apeaderora igoera. Jabier Mendizabal.

Abuztuaren 23ko **disfrazak** eta arratsaldeko herritarren arteko futbito txapelketak eguneko umorea eta lehia ipini zuten. Disfrazetako sariak honako hauek irabazi zituzten:

Bakarkako saria: Iñaki Lasa. Giro gehien sortu zuen taldea: Drucking taldeko neskatxa ikusgarriak eta disfraz landuenaren saria: Ijitoen taldea. Bestalde arratsaldeko **futbito partidua:** Tauriton eta Tripik jokatu zuten finala eta Txapeldun Tauriton taldea izan genuen.

Herritarren **Bolo txapelketa** ere Txarapen egin zen. Aurten haurren artean denok huts egin zuten eta ez zen irabazlerik izan. Helduetan berriz, Jesus Telleriak eraman zuen saria.

Bestalde, aurten jaietako

programaren azala aukeratzeko egin den III. **Argazki Lehiaketaren** irabazlea Izaskun Igoa izan da, berak jarri dizkigularik Udaletxeko balkoian bi bela galant. San Bartolome egunean, berriz, herriko dantzari txikien saioa izan genuen plazan, Tobera Musika Eskolan prestatuak, eta herriko agintariek ere Soka Dantza dantzatu zuten. Eguerdia eguerdian jakin genuen, herriko **lorategi zainduenaren** aurtengo saria Klaritya Agirrek irabazi duela eta balkoi eta leihoetako saria berriz Kontxi Arozenak. Arratsaldean **pilota partidua** izan ziren kiroldegian urteroko lege, aurten ere herritarrek gogor aritu ziren ikuskitzun ederra emanaz eta herritarren arteko partiduan Jon Arakama eta Adier Berasategik irabazi zuten. San Bartolome bigarrenen, sokamuturrean astindu ederra jaso zuen bada eta ondoren **LXIX. San Bartolome Txirrindu Froga** Aitor Perezek irabazi izanak herrian giro eta poz galanta sortu zuen ondoren izan ziren bertsolarien saioak eta sagardo eta sardina jateak eguna ederki borobildu zutelarik; jendetza ikaragarria bildu zela esan behar ekintza hauek medio. Eguraldi txarrearatikatik **Probintziako Bolo** txapelketa bertan behera utzi beharra izan zen. Astelehenean, abuztuaren 26an umeen eguna antolatu zen, goizean goiz umeak mozorroturik kiroldegi aldera bideratu ziren, euria zela medio eta El-

Kultur etxean ikastaroa: perretxikoak

Datorren irailaren 19an, Kultur Etxean perretxikoei buruzko ikasketa-saiotxo bat izango da iluntzeko 7,30etan. Perretxikoei aditua den pertsona bat izango da bertan, eurei buruz argibideak eman asmoz. Irteera bat egitea interesgarritzat jotzen bazen ere, denbora gehiago aprobetxatuko zela pentsatu zen Kultur Etxera, bakoitzak ahal zituen perretxiko desberdin gehienak ekarriko balitu eta beraz hori da proposamena. Norberak nahi dituen perretxikoak ekartzea. Bertan argituko du adituak zein motatakoa den eta baita jangarria den ala ez. Beraz, perretxikoak biltzen adituak zareten zegamarroi dei berezia egiten zaizue Kultur Etxetik, irailaren 19rako ahal duzun perretxiko mota desberdin guztiak bildu eta Kultur Etxera ekar ditzazuela.

Ikastaro saio honetan parte hartu nahi duenak izena Udaletxean eman behar du, 943 801351 telefonora deituz eta matrikula 3 euro izango da. Epea: Irailak 17.

San Martinetako torneoa

San Martinetan jokatu da herritarren arteko eskuz binakako torneo eta bertan parte hartu nahi duenak, izena Udaletxean eman behar du. Zozketa datorren irailaren 10ean egingo da Udaletxean bertan gaueko 9etan eta izena emandakoak bertan egotea beharrezkoa da.

Inprentakoek bazkaria

Zegamako Inprentan lanean ibilitakoek elkarrekin bazkari bat egitea erabaki dute. Eguna, irailaren 29a, Zegamako Ostatun. Eguerdiko 12etan, Inprentan lanean ibili eta gaur egun hilda daudenen alde meza izango da eta ondoren bazkaria. Izene-matea, irailaren 13 aurretik egin behar da honako telefono honetan: 943801289 Kontxi

Edurne Albizu

karteen arteko Paella Lehiaketak ere, kiroldegian burutu beharra izan zen eguraldia lardatsa medio. Hala ere, giro ederra izan zen, udaletxe azpian jarri zuten Olaberri elkartekoak **Toka Txapelketa** eta aurten Tomas Lasa zegamarrak jo zituen gehiena, **Paella Lehiaketa** berriz, Tartalo Elkarteko Amaia Gorospe eta Eider Arrietak irabazi zuten eta bigarren saria, Txarape Elkarteko Iñaki Urreaga eta Arantxa Ariztimuñok jaso zuten; esan guztiak ere onak egongo zirela, lehiaketa ondoren paella guztia bertaratu artean banatu baitzen eta arrastorik ere ez zen geratu ordu bete beranduago. Arratsaldean herritarren arteko sokatira eta herri-kirolak jarri

zuten giroa kiroldegian. Gaueko suziriak eta "belearen entierroa" izan ziren, azken honetan ehun lagunetik gora parte hartu zuen, baina beleari aurtengo San Bartolome jaietako programaren azalerako aukeratutako argazkia gustatu edo sobra ere eta berritro ere balkoira itzuli zen Izarraga baserri aldean ezkutatu ordez. Tabernariak abuztuaren 31rako antolatu zuten jaiak, herriko haurrak buruhandi, erraldoi eta zankodunekin gustura ibili ziren.

Bestalde aipatu, Kultur Etxean ere, eskulan ikusgarriak egon zirela eta baita Aitxuri Herriko Eskolako haurren trebeziak ere ikusgai egon ziren.

Argazki rallya irailaren 29an

San Migel egunean, irailaren 29an, IX. argazki rallya jokatuko da herrian. Edonork parte har dezake rally honetan. Hori bai, modalitatea, 35 mm.ko diapositibena da.

Izena ematearekin batera jakinaraziko dira argazki rallyaren gaiak. 5 gai izango dira. 9 euro kostako da izen ematea, karreteia eta errebelatua barne; bazkaltzen gelditu nahi duenak 23 euro ordaindu beharko ditu.

Argazki rallyaren ordutegia hau da: udaletxean: goizeko 8etatik 10,30etara karrete banaketa eta irteera izango

da. 13:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara karreetan jasotzea eta rallyaren amaiera izango da.

Diapositiba emanaldia eta sari banaketa ekitaldia, azaroaren 1ean egingo da arratsaldeko 6etan. Sariak hauek izango dira: 1.arenzat, 150 euro eta garaikurra; 2.arenzat, 90 euro eta garaikurra; eta 3.arenzat, 60 euro eta garaikurra. Herritarrentzat ere sari berezia egongo da, aurreko sariren bat jaso ez duen herriko 16 urtez gorako lehenengo sailkatuarentzat: 60 euro eta garaikurra



San Joan Txiki egun arrakastatsua

Urtebete gehiagoz, abuztuaren 29an, San Joan Txiki eguna ospatu zen herrian. Uda guztian bezala eguraldia oso lagun izan ez bazen ere, jende mordoxka bildu zen ekitaldi ezberdinetan parte hartzeko. Argazkian, arratsalde partean izan artzain txakur lehiaketako irudia ikus daiteke.

IV. Haurren argazki rallya: 'Aceralia Largos Perfiles Olaberria, S.A.'

Argazki rally hau 16 urtez beharagoentzat izango da, hau ere irailaren 29an. Partaide

bakoitzak bere argazki kamara ekarri beharko du soilik; karreteia eta errebelatzea antolatzaileen ardura izango da. Izen ematea 3 euro kostatuko da. Sariak: Partaide guztiak sari bana jasoko dute.

Ikasturte berriaren hasiera honetan, oporren amaierari aurre egiteko herriko festei atzera-begirada bat botatzea modu txarra ez litzatekeela eta, orduko zenbait ekitaldik eskaini zutena errepasatuko dugu hemen. Lau egunetan zehar bildu ziren ekintzak, abuztuaren 14tik 17ra, aipagarrienetako batzuk ondoren goak.

San Lorentzo eguna

Herri-giroko jai hauekin eman zitzairen ongiatorria festei. Ugarana Goikoa zozkerako auzotarrek Zuzula Garako Dolores Ondarra omendu zuten, abuztuaren 9ko afariaren ostean oroigarria oparituta. Afari eta bazkarien artean, gutxitan ikusteko aukera izaten den ahari-joko apustua

ere sortu zen, abereetako batetik bestea menderatu arteraino luzatu zena. Mus txapelketak ere urtetik urtera indar handiagoa dakar; 25 bikotek parte hartu zuten.

XI. txirrindu igoera

Kiko Gurrutxaga txirrindulari afizionatu ohiak lortu zuen aurtengo edizioako lehenengo saria, Ormaiztegitik herrirainoko aldapa 13 minututan igoz, Iñigo Andola eta Ibon Elgarresta segundo gutxira atzetik zituela. Emakumezkoetan titulua Maialen Igartzabalek erdietsi zuen, gazteetan indartsuena Beñat Maiz izan zen bitartean. Sari ugari banatu ziren horiez gain, laisterketa herrikoik ikusgarri honetan egindako esfortzuen esker-agiri gisara.

Festa ondoren lanera

Herriko produktuen erakusketak

Herritarrek egindako zenbait jaki ikusi, baloratu eta dastatzeko aukera izan zen lau egunetan zehar. Andramari egunean garbi utzi zuen Baztarrikako Amelia Jauregik gaztagintzan kanpoko lehiaketetan ezezik herrian ere nagusi dela, beste behin onenaren trofeoa jaso. Ogirik goxoena Bittor Sukiak aurkeztutakoa erabaki zuten bertaratu ziren herritarren botoek.

San Roke arratsaldean, berriaz, sagardoaren eta txistorraren txanda izan zen, jende andana erakarri zuen ekitaldia berau, herriko harakinek egindako txistor klaseak probatzeko aukera ezin hobea izaten baita honelakoetan.

Kultura present

Jan-edanaz, parrandaz eta kirolaz haraindi, kulturari eta folkloreari ere tarte egin zitzairen egitarauan. Aipatzeko tan bertsolari jaialdia litzateke gogora ekartzeko moduko une bat, punta-puntako sei bertsolarik saio bikaina borbildu zuten-eta. Herriko dantzariak atondu zuten erakustaldiak ere txalo ugari bereganatu zituen, mozorro gauean aurkeztu ziren ikuskizun dotoreek bezalatsu.

Bukatzeko, festa batzordearen eskariz eta lerro hauetatik, ekitaldiak prestatzen, aurrera eramaten, ikusten nahiz modu batera edo bestera parte hartu duten guztiei eskerak helarazi nahi dizkie Udalak, jaien arima eta gune herria bera baita Gabiriako Andramarietan.

Aimar Maiz

Oporren ondoren festak berriro ere

Santa Ana jaiekin utzi zintuztegun eta abuztuko oporraldia iraganda beste jai batekin gatzkizue oraingoan ere. Euskal festei dagokie oraingoan txanda eta izango da zer ikusia irailaren 6a eta 15a bitarte honetan, "X" orrialdeko egitaraua ikusi besterik ez daukazue. Ohi bezala egunik potoloena irailaren 11n ospatuko dena izango da, peri berezia egingo baita orduan. As-teazken eta ostiraletako ohiko postuez gain artisautza postu bereziak, ganadua, lehiaketak, gazta enkantea, pilota partidak, trikitilariak, dantzak, aizkolariak, harri-jasotzaileak, zozketak e.a. ez dira faltako. Azken batean, egurraldia lagun, egun zoragarria pasatzeko aukera herritar eta kanpotik etorriko den baserri-tarrez jantzitako jende horrentzat guztientzat.

Gainontzean haur eta jubilatu txanda izango da lehen asteburuan, Elkarre desberdinetako sukaldariei iritsiko zaie txanda hurrena, Goierriko odolki onena aukeratu da, peri berezia asteazkenean eta berriro ere asteburuarekin batera kantuari iritsiko zaio

txanda, kantu afaria izango baita aurrena eta bertsolarien jaialdi berezia hurrena. Igandean, Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketaren sari banaketarekin eta Oianguko erromeriarekin emango zaie amaiera aurtengo euskal jaiei.

Kantu afaria

Euria egiteko asko kantatu beharrik ez badago ere, irailaren 13rako eta euskal festen barruan kantu afaria antolatu du Hitzaro Euskara Elkartek. Aurretik ere honelako bi antolatuak ditu Hitzarok, baina ordukoak leku itxian egin baziren ere oraingoa Garagartza Plazan izango da. Aulkiak eta oholtza prest izango dira eta Iparraldeko Beñat abeslariaren gidaritzapean oholtza gainetik pasako dira herriko abesbatzak eta Errondaila. Bitartean bertaratutako guztiek hor izango dituzte prest 2 euroren truke ogitartekoa eta kantu liburuxka. Juntadizoa iluntzeko 8,30etan egingo da, esan bezala irailaren 13an Garagartza Plazan eta guztiak ere betiko euskal kantuak abestera gonbidatuak zaude-te.

Euskara ikasteko ikastaroak

Euskaldundu, alfabetatu, dakiten apurra hobetu edota EGA titulua eskuratu nahi duten guztiek aukera izango dute hemendik aurrera Goiztiri AEK-k antolatutako ikastaroetan. Izena emateko epea irailaren 9an ireki eta 26an itxiko da eta irailaren 30ean hasiko dira klaseak. Izena emateko nahikoa da 943-889174 telefono zenbakira deitu edota AEK-k Santa Maria Kalea 4-2-ekz.-ean (Dorrea Etxea) duen lokalera joatea. Bulego ordutegia goizeko 10etatik 1era eta arratsaldeko 4etatik 8etara izango da. Ikastaroak egunean 2, 3 edota 5 ordukoak izango dira eta jakin autoikaskuntza gela ere prestatu dutela ikasturte honetarako egunero bertaratzeko astirik ez duten horientzat guztientzat.



Ezpatarrainaren arrantza

Ez ohiko arrantza joaneko igandean Geta-rian Jose Antonio Torres 'Txino'k egindakoa. Ezpatarrainak arrantzatzea zaila da gure inguruan eta are zailagoa bertako arrantzaleek ezer ez dagoela kexu direnean. Baina 'Txino' zorteko izan zen joaneko igandean. Arratsalde pasa arrantzaz zebilela arrain handi bat ikusi, amua bota eta argazkian ikus daitekeen "pieza" itsasotik atera. Orain 4 ur-

te hasi zen arrantzaz 'Txino' eta harrezkero txapelketa batzuetan ere hartu du parte. Oraingo trofeoarekin amarentzat lana, dena zatitu eta potetan sartzeko asmoa baitu 'Txino'k.

Iker Iraola Extremadura aldera

Iazko denboraldian Hospitalet talde kataluniarrean aritu ondoren, Extremadurako Jerez de los Caballeros taldean arituko da hemendik aurrera Iker Iraola futbolaria. 26 urte ditu orain Ikerrek eta dagoeneko esperientzia handia bigarren "B" mailan. Gaztetan herriko taldeetan hasi zen futbolekin eta segituan fitxatu zuen Realak. Lehen taldeetara igotzea lortu ez eta Burgos taldera joan zen, ondoren Beasaina, gero Fuerteventurako Pajara de Playas de Jandian bi urte eman zituen, iaz Bartzelonako Hospitaleten aritu zen eta esan bezala orain Badajozeko Jerez de los Caballerosen ari da.

Futbol eskola

Irriki futbol eskolaren aurkezpenean izango da datorren irailaren 12an. Berau Barrena Jauregian izango da arratsaldeko 7,30etan eta bertan emango dituzte proiektu honen xehetasunak. Gure aldetik hurrengo alean eskainiko dizuegu informazio gehiago.

Atletismoa

Txindoki Atletismo Taldekoak ez dira geldi egon abuztuan eta lasterketa eta proba asko izan ez badira ere Anartz Etxeberriak 7. postua lortu zuen Loiolako herriko krosean (uztailak 31) eta bigarrena izan zen Burgosko Sala de los Infanteseko proban (abuztuak 10). Aitor Estala, berriz, abiadura probetan aritu da eta abuztuaren 20ko Donostia Sari Nagusian 7.ena izan zen 200 metroko proban.

Aitor Calvillo

Etxeak gora, etxeak behera

Ez da agian oportetarik bueltan irakurtzea gustutuko litzaizukeen berririk interesgarriena izango, baina, pixkanaka-pixkanaka, herrian geroz eta etxebizitza gehiago egiten ari direla kontu nabarmena da. Asko kostata, baina, batzuk bukatuta dau dela esan daiteke, eta beste batzuk, aldiz, oraintxe eraikitzen hasita.

Orain urte batzuk Bikario-etxe inguruetan eraikitzen hasitako etxebizitzak amaituta daude. Batzuk oraindik ez dituzte eskriturak sinatu, eta beste batzuk ia bertan bizi dira. Guztira 30 etxebizitza eraiki ditu Azpeitiko Ormaizpegi eraikuntza enpresak: horietatik 24 babes ofizialeko etxeak dira eta beste 6 libreak. Inguru hori Gaztiñeri ize-



narekin ezagutu izan da betidanik, eta izen bera izango dute etxe berri horiek.

Bestalde, Irazustabarrena etxe atzean uztailaren amaieran hasi zen 16 etxebizitza duplex eraikitzen Andres Lasas etxe eraikitzailearen taldea. Hemen ere, aurrekoetan bezalaxe kontu administrati boak atzeratu egin dute obrak hasteko epeak. Udalak, hala ere, etxe berri hauekin aurrekoekin baino komeri gutxiago izatea espero du.

Inaki Gurrutxaga

Saroi Jauregi

Gerardo Jabier Garmendia

Gerardo Jabier Garmendia Zaldibiako artzainari eman zioten joan den igandean Legazpin ospatu zen Artzain Egunean Gipuzkoako artzain onenaren saria. Garmendia Aralarko Doniturrieta Garakon aritzen da artzain lanetan. Jesus Mari Mendizabal Kaxkagorrik, berriz, sari berezia jaso zuen bizi guttian zehar artzaintzari eskainitako lanagatik.

Festetako bilera, irailaren 10ean

Azken alean festetako bilera irailaren 5ean izango zela iragarri baguen ere, azken orduko zenbait arrazoi medio, bilera irailaren 10era atzeratu da. Arratsaldeko 7,30etan izango da bilera, Kultur Etxean. Azken orduko aldaketarik ez bada behintzat, honakoak dira zehaztuta dauden festa egunak: urriak 4, 5, 6, eta 7. Udalak bileran parte hartzeko gonbita egiten dizue herritar guztiei, eta proposamenak eramatea eskatzen du.



Bestalde, eta festekin lotura duen kontu bat ere jartzen du mahai gainean. Festetako liburuxkan Zaldibiako Herri Eskola izango da aurtengo gai nagusia, eta hori behar bezala egin ahal izateko, etxean hautsak jaten dituzuen argazkiak Kultur Etxera eramateko eskatzen dizue. Argazkiak eskolarekin zerikusia dutenak izan behar dute, baina bestelako argazki kuriosoren bat baldin baduzue eraman dezakezue.

Argazki lehiaketa

Zaldibiako Udalak eta urtero antolatu ohi den argazkigintza ikastaroko irakasle eta ikasleek Argazki Lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa honetan zaldibitarrek edota argazkigintza ikastaroa egindakoek parte har dezakete. Zuri beltzean nahiz koloretan aurkez daitezke lanak, eta bi dira proposatzen diren gaiak: Zaldibia eta gai librea. Lanak Kultur Etxean aurkeztu behar dira irailaren 25a baino lehen. Oinarrirei buruzko xehetasunak Lurdesek jakinaraziko dizkizue 943.16.03.38 telefonoan.

Aerobic, mantenimendu eta gimnasia

Urtero ikastaro horietako baten parte hartu duzuenok edota parte hartzen hasi nahi duzuenok irailaren 25a baino lehen eman beharko duzue Kultur Etxean.

Yoga klasikoko ikastaroa

2002-03 ikasturtean Ordiziako Yoga klasikoaren taldeak Zaldibian ikastaro bat eman behar du. Klaseak asteen behin izango dira eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Klaseak gimnasia emango dira, eta eguna eta ordua interesatuen artean finkatuko da. Interesatuek Kultur Etxean eman behar dute izena irailaren 30a baino lehen.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

**Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33**

BEASAIN

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Igartza-Loinatz auzoko jaiak

Abuztuko oporrak bukatuta, urtero ohi bezala festa giroa izango da Igartza-Loinatz auzoa. Jarraian duzue egitaraua:

Irailak 6, ostirala:

19:00etan: Buruhandi eta kilikiak.

22:30ean: Antzerkia: Trapu Zaharraren 'El cuarto tenor'

24:00etan: Kontzertua, Beasaingo Gazte Asanbladak antolatua.

Irailak 7, larunbata:

10:30ean: Igeriketa txapelketa.

12:00etan: Marrazki lehiaketa eta graffiti erakusketa.

16:00etan: Arkuzko gezi tiraketa.

16:00etan: Mus txapelketa.

16:30ean: Haur jolasak.

17:00etan: Toka eta igel txapelketak.

18:00etan: Pilota partiduak: Urteaga-Oregi Arratibel-Iraolaren aurka; Agirre-Esnaola Amundarain-Mujikaren aurka.

19:30ean: Euskal dantzak

23:30ean: Trakets taldea.

Irailak 8, igandea:

9:00etan: Ehiza zakurren II. erakustaldi-txapelketa.


12:30ean: Buruhandiak eta kilikiak.

18:30ean: Herri kirolak: Gaztelu-Segura.

19:30ean: Bertso jaialdia: Sarriegi, Zubeldia, Urdangarin, Munduate, Goikoetxea.

Beasainmendiko jaiak

Irailleko lehen igandean, ohi bezala, Beasainmendiko jaiak izan zen irailaren lehen. Bertsolariak, herri kirolak, trikitilariak, herri bazkaria, haur jokoak... egun polita pasatu zuten bertaratu zirenek. Urtero auzotar bat omentzen dute jai egun honetan. Aurten, Bidaurre baserriko 81 urteko Joxe Ramon Etxeberria. La Sallen ikasketak 13 urtera arte egin ondoren, eraikuntza lanean hasi zen 20 urterekin. Batean eta bestean ibili ondoren, Indar lantokian egin zituen 38 urte, erretiratu arte. Aizkora eta ehiza ditu afizio. Iaz ere izugarritzko erakustaldia egin zuen Agortako jaietan: 15 minutu eta 52 segundotan, kana erdiko bi enbor ebaki zituen. Aurtengorako desafioa botata zuen baina inork ez du onartu. Ehiztari amorratua, urtero-urtero, urriaren 10etik azaroaren 10era arte Avilan izaten da, usotan.



Adineko pertsonen eguna

Irailaren 15ean izango da aurten, urtero egin ohi den adineko pertsonen eguna. Antzizar Kiroldegian izango den bazkaria joan nahi dutenek, irailaren 12 baino lehen eman beharko dute izena. 3 euro ordaindu beharko da. Izena, Udaletxeko Harrera bulegoan egin behar da, goizeko 10etatik 12etara bitartean. Izena ematerakoan nortasun agiria aurkeztu behar da.

ANZIZAR Taberna

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8

☎ 943 88 43 17

BEASAIN

JULIAN MUJIKA

Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak

Festa onak pasa!


Igartza Oleta, 10

☎ 943 88 01 96

BEASAIN



IBAI ONDO



AROTEGIA

Merkealdia!
esposizio aldatetarik

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako arotzegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

KALITATEKO
EUSKAL
OKELA



Harategi - Urdaitegia
Festa onak pasa!

Saltsamendi

☎ 943 888 646

Igartza Oleta, 12

BEASAIN

ZUHAIZPE TABERNA

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Igartza Oleta, 14

BEASAIN



LOTO - PRIMITIVA - 1 X 2

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 23 12

BEASAIN

San Gregorioko festak tarteko Ikasturte berriaren hasieran

Eguzki izpien bixitek apenas goxatu gaituzten abuztuaren bueltan, hemen gara berriro ere ikasturte berriari hasiera eman asmotan. Salbuespenak salbuespen, San Gregorioko jaiek iraun duten bitartean nahiko giro polita egin duela esan behar.

Joan berri den astearte honetan, irailak 3, San Gregorio eguna izaki, abuztuaren 29an, ostegunean eman zitzaien hasiera festei Haurren Eguna ospatuz. Gauean egindako herri afarian 50-60 lagun inguru elkartu ziren. Larunbatean, Preso Eta Errefuxiatuen eguna, besteak beste, XLIII Txirrindulari proba jokatu zen urteroko legez. Aurten goan Efrain Gonzalez, Cafes Baqué taldeko txirrindulari Cantabriarrak irabazi zuen. 3 ordu inguru behar izan zituelarik 127 kilometroko ibilbidea egiteko. Bi eta hirugarren postuan, Alfus eta Caja Rural taldeetako Jon Diez eta Gorka Verdugo helmugaratu ziren. Herriarrei dagokienez, esan Dioni Galparsoro eta Ai-

tor Arrondo herriarrek parte hartu zuten lasterketan. Jarraian, Otsoa dantza taldearen dantza ikuskizuna izan zen.

Igande arratsaldean herri kirolak izan ziren jaun eta jabe. Horrez gain, musika talde eta beste hainbat ekintzez osaturik etorri zitzaigula esan behar, aurtengo San Gregorioko jaien egitaraua. San Gregorio eguna, ohiko legez ospatuz eman amaitu ziren aurtengo San Gregorioak joan den asteartean.

2002-2003 ikasturteari hasiera

Joxemiel Barandiaran ikastetxeko ikasleek datorren irailaren 9an, astelehena, ekingo diote ikasturte berriari. Lehenengo astean, irailaren 9tik 13ra, goizez 9etatik 12,30etara izango dira saioak. Hurrengo bi asteetan, hilaren 16tik 27ra bitartean hain zuzen ere, saioak goizeko 9etatik eguerdiko 1etara izango dira.

Agurtzane Bikuña

J.M. Goikoetxea eta Joxe Barandiaranen apustuaren 20. urteurrena

Joan den abuztuaren 28ko Diario Vascoren alean, Joxe Ramon Munduate herriko kronistak Ataungo kronikan idatzitako berri bitxi honen berri izango duzue jada zuetako askok. Izan ere, Munduatek duela 20 urteko, 1982ko abuztuaren 28an gauzatu zen aputuaren berri damaigu aipatu kronikan. Norgehiagokaren protagonistak: Amilletako Joxe Barandiaran eta Dornaingo Joxemari Goikoetxea. Desafioa: San Martin, Kobai, Aralegi eta Iztator arteko ibilbidea nork burutu lehenago. Jokoan: Sei bazkari. Azkenean, Aizkorondoko Juan Agirre prestatzaile izan zuen Joxe Barandiaran izan omen zen helmugaratzen lehena. Ordubete eta 23 minututan burutu zuelarik ibilbidea. Bost minuturen buruan iritsi omen zen Batzokiko Jabier Auzmendiren esanetara aritutako JM Goikoetxea. Apustuaz gain, Amilletakoak eskuratu omen zuen Suki baserriko Lope Goenak, Lasarteko Lepotik lehenengo pasatzen zenari eskainitako 500 pezetako saria ere.

Mendiko berriak

Ataungo mendietako asuntuez arduratzen den Udal sailetik datozkigu ondoko berriok. Alde batetik, Muskiko herri mendietako bi zati desberdinetan burutu den insignis pinuaren matarrasa edo erabateko mozketa jada amaitu denaren berri damaigute. Momentuon egiteke gelditzen dena pistak bere horretara bueltatzea delarik. 16.5 hektareako ustiaketa Central Forestal izeneko etxeak burutu du. Orain, urtea amaitu aurretik insignis pinuaren landaketa egitea da asmoa.

Bestalde, Aralegiko zelaitik Aldasparrenara bitartean doan bidean egiten ari ziren larizio pinuaren entresaka lanak amaitu dituzte. Momentu honetan egurra ateratzea baino ez da falta eta hortaz Central Forestal etxea arduratuko da. Guz-tira 50 hektareatako egur ustiaketa egin delarik.

Azkenik, Amundarain baserria eta Lasarteko lepoaren artean egin diren hiru pista berriren berri eman digute. 1.300 metrotako pista egiteaz Benito Elizegi arduratu omen da. Egin berri diren pista horiek aprobetxatuz, larizio pinuaren entresaka egiteko asmoak ditu orain Mendi sailak.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosegi, 16 **LAZKAO**



Kultur astea irailaren 14tik 22ra

Irailaren 14, larunbata, haurren marrazki lehiaketa, merienda eta buruhaundiekin emango zaio hasiera aurtengo kultur asteari.

Jubilatuen eguna

Igandea, hilak 15, jubilatuen eguna izango da: goizeko 11,30etan Meza Nagusia herriko Uharka abesbatzak abestuta, ondoren Ataungo Eate abesbatzaren kontzertua elizan, eguerdiko 2etan bazkaria herriko Ostatu jatetxean, bazkal ondorenean Etxeberria eta Agirre bertsolariak eta Xapre trikitilaria.

Hitzaldiak

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 8,30etan kultur etxeko aretoan izango diren hitzaldi ezberdinak eta diapositiba emanaldiak osatuko dute astea.

Astelehena, hilak 16: Gaia: Euskal izen-deiturak, hizlaria Mikel Zalbide.

Astearte, hilak 17: Gaia: Zerain.com mundura zabal-tzen, hizlaria Zerain Deza-gun Fundazioa.

Asteazkena, hilak 18 : Gaia: Eguraldiaren gora behe-rak, hizlaria Pello Zabala.

Osteguna, hilak 19: Gaia: Ilargiaren eragina landaretan, hizlaria Xabi Akizu.

Ostirala, hilak 20: Mendiko diapositiba emanaldia.

Txondorra

Irailaren 16an piztu eta kultur astean zehar feri egunera arte txondorra sutan izango da Antxapotxu (Antzarpotzu) bezala ezagutzen den zelaian, herriko sarrerako bidegurutzean.



Azoka ekologikoa

Irailaren 22, igandean VIII. Feri ekologikoa izango da. Aurtengoan ere goizez sal-

menta feria eta artisauek izango dira eta arratsaldean festa giroa.



Andra Mari jaien aipamenak

Dagoeneko ahaztuak izan arren Andra Mari jaiak, gertaera nabarmenenak aipatu nahi genituzke.

Hilaren 14a, Andra Mari bezpera, haurren eguna zela eta berriztatu berria den haurren parkea estreinatu zuten,

bertan barku bat irudikatzen duen jolasteko tresna oso berri-tzatzailea jarri da.

Andra Mari eguerdiko txakolin dastatzea urtetik urtera ezagunagoa egiten ari da eta aurtengoan ere jende mordoska ederra inguratu zen bertara.

San Roke eguneko herri afarian ere lauhun lagun

bildu ziren herriko plazan eta ondorengo mozorro lehiaketan ere partaidetza bikaina izan zen, ondo landutako mozorroak ikusi ahal izan ziren, eta lehen hiru sarituak: 'Klan Etxeberria ijitoak', 'Arantzazuko mojak' eta 'Esperantxa behia salgai', izeneko mozorroak izan ziren. Badu irudimena jendeak!

Zeraingo I. Raid-a

Hilaren 8an jokatu da Zeraingo I. Raid. Goizeko 10:30etan herriko plazan irteera emango zaio eta herriko eta partzuergoko mendietan zehar 81 km. egin ondoren eta Beundan bi kontrol pasatuta arratsaldeko 5,30ak aldera hasiko dira iristen Zeraingo plazan kokatuta egongo den metara.

Mari Flor Mendizabal

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

etxekin



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Herri sarrera berritzeko lanak martxan

Irailarekin batera hasi dira Jeronimorenetik herri gunera bitarteko errepidea eta inguruak berritzeko lanak. Epeak betetzen baldin badira, bost hilabeteen, Sanblasetarako, lanak bukatuta egongo dira. Orduan, gune horrek itxura erabat ezberdina izango du.

Proiektuak bi atal ditu. Lehenena, Jeronimorenetik Futbol zelaia bitarteko zatiari dago-kio, bigarrena Arizkorreta paretetik herri gunera artekoa. Azkeneko honetan izango dira aldaketa handienak. Futbol zelaia baino beherago, txale-taren parean errotanda bat egingo dute. Hortik herri gu-nerako errepidea estutu egin-

go dute eta alde banatara gu-txienez 2 metroko zabalera duten espaloiak jarriko dituzte. Espaloietako batek apar-kaleku zerbitzua ere beteko du, hori dela eta ertzak ba-xuagoak izango ditu.

Bigarren zatian ere bidea estutu egingo dute. Espaloia, oraingoz alde bakarrean egongo da. Beste aldean, zuhaitzak landatuko dira, eta etorkizunean espaloia egiteko lekua prest utziko dute.

Herri sarrerako urbaniza-zio lanen helburu nagusia, za-ti horretan dauden azpiegitu-rak berritzea da. Uraren ho-diak aldatuko dira eta gasare-nak ere sartuko dituzte. Jero-

Kultur Etxeko arduraduna

Udalak Kultur Etxeko arduraduna aukeratzeko deialdia egin du. Irailetik uztaile bitartean, astean 15 orduko lan aldia betetzeko kontratua eskaintzen du Udalak. 18 urtez gorako herritarra izan eta euskara jakitea dira eskatutako baldintzak.

Horiez gain kultur proiektu bat aurkeztea, edota herriko kultur ekintzetan parte hartzea ere baloratuko da. Izena emateko epea irailaren 9an, bukatuko da.

KZ gunea

Abuztuko oporraldiaren ondoren KZ gunea zabalik dago be-rriro ere. Aurreko hilabeteetan bezala, ikastaro eskaintza za-bala dago ikasturte berrirako. Internet erabiltzen ez dakien-a-rentzat 'Nabigatzen Hasi' ikastaroak antolatu dituzte iraila-ren 11tik 13ra; 17tik 18ra eta 23tik 25era. Goizean (9:00-13:00) eta arratsaldean (18.00-20.00) egin daitezke.

Internet erabiltzen dakienak 'Sakonduta Interneten' ikasta-roa egin dezake, irailaren 16tik 25era eta 26tik 7ra. Goizean eta arratsaldean emango dira hauek ere.

Irailerako antolatutako mintegietako batzuk hauek dira: Zure ordenagailua konfiguratu (irailak 9,10); Ezagutu justi-zia (irailak 9), Bidali postal bat (irailak 10) eta Kutxanet (irailak 10).

Irailaren 13an, IT Txartela eskuratzeko azterketa egin ahal izango da KZ gunean. Txartel hori, informazioaren tek-nologien oinarritzko ezaupideak egiaztatze sistema da. 16 urtetik gorakoek egin dezakete frogia, horretarako izena irai-laren 6a baino lehen eman behar da. Azterketa hilabetero egingo da, eta hura burutzen den bitartean KZ gunea itxita egongo da. KZ gunek ohiko ordutegia du: goizetan 9:00eta-tik 13:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara.

nimoreneraino iritsiko da Idiazabalgo gas bidea. Han, Gas Euskadik Amporaino ekarrita duen azpiegituren bat egingo du gas bide horrek.

Lanak irauten duten bitar-tean, trafikoarentzako traba

handiak izango direla jakina-razi du Udalak. Denbora ba-tez gainera, hasi berri diren lanek, Jeronimoreneko erro-tondakoekin bat egingo dute.

Xabier Urteaga



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Arboladian berrikuntzak

Elizarantzat ematen duten eskaileretatik ospitale aldera dauden oztopo arkitektonikoak kendu alde batetik, eta errebote aldera guztia eskailera bihurtuko dute bestetik. San Joan sua egiten den ingurua adokinatuta egingo da. Lanak irailean hastekoak dira.

Ehiz postuen subasta

Partzoneriko herrien artean abuztuaren 30ean 48 postu zozketatu ondoren, gainerako 48 postuak subastatu egingo dira irailaren 15ean 10:30ean hasita, Segurako udaletxean. Proposamenak 14an, 12:00-etarako bidali behar dira.

Labur-labur

● **Erosleko txistorrak** lehen saria lortu zuen Gabiriako harrakinen artean burutu zen txistor txapelketaren 6. edizioan, abuztuaren 16an.

● Pasa den asteburuan izan dira zenbait herritar, zeraindar eta mutiloarrekin batera urteroko **erromesaldian Arantzazazun**.



Jubilatuak, iaz, mezetatik irtetzen.

Jubilatuen eguna

Irailaren 15ean ospatuko da herriko jubilatuaren eguna. Herriko dantzari eta txistulariek, arboladian harrera egin ondoren, 12:00etan meza izango dute parrokan. Ondoren bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean. Foru Aldundiko laguntzak murriztu direnez, udalaren eta jubilatuaren elkartearen arteko adostasunaren ondorioz, inguruko hainbat herritan bezala, bazkariaren zati bat ordaindu egin beharko dute jubilatuak.

I. Euskal hegazti eguna irailaren 29an

Euskal oiloa izango da protagonista

Herriko zenbait taldek eta udalak antolatutako lumadun animaliei eskainitako eguna dago iragarria irailaren 29rako. Antolatzaileen esanetan, helburua herriari bizitasuna ematea eta hegazti aktibitatea ezagutaraztea da. Udaberriaren lore eta landare azoka burutzen den modura, udazkenean hegaztiei eskainitakoa gauzatu nahi da. Erakusketak, azalpenak zein salmentak eguerdi artean izango dira, plazan, errebotean eta arboladian. Hainbat herritarren hegaztiez gain, euskal oiloak, oilaskoak, txitoak, oilarrak, antzarrak, ahateak, os-



Hainbat hegazti ikusi eta erosteko aukera izango da irailaren 29an.

trukak, kurrioloak, zisneak, usoak, eperrak... eta beraie-tatik sortutako produktuak ere (arrautzak, pateak, he-

gaztikiak...) izango dira bertan. Hurrengo alean informazio gehiago eta egitaraua.

● **XX. usakume tiraketa** jokatuko zen irailaren 1ean Azpatoza txikiko zelaian. 171 lagunek parte hartu zuten. Lehen herritarra, Imanol Agirre.

● **Txanbolinpeko zutabeen egurra bistaratu** eta pintatzeko lana aste honetan hasi dute.

● **Arantzazu auzokoaren afa-ria**. Auzoan hildakoen aldeko mezaren (20:00) ondoren,

portikopean afaria izango dute auzotarrek irailaren 7an.

● **Irakasleak** aste honetan hasi badira ere, 2tik 12 urte arteko ikasleak irailaren 9an hasiko dute **02-03 ikasturtea**. Goiko eskolatik Aterpe-txera ireki den bidea aste honetan da amaitzekoa.

● **Futbola**. Bi asteburu barru hasiko dute liga errejonalek eta hiru barru gainerakoek. Errejonalek zapatu honetan

Zumarraga-Urretxu futbol torneoan parte hartuko dute. Zuzendaritzakoek bazkide kanpaina hasiko dute, daudenak berrituz eta berriak eginenez.

● **Jubilatuaren txangoa**. Irailaren 23an Lodosara. Izen ematea 17 eta 18an Atsedene-n.

Joseba Telleria

Lau etxeren fatxada berritzeak

Gaztekutxak udalaren babesarekin udarako antolatu ohi dituen auzolandegietarako gazte unibertsitarioek, Apao-lazane (Beheko panaderia), Iñudene, Meñone eta Amaliatxone etxeen aurrealdeak garbitu, txukundu eta pintatuko dituzte. Berrikuntza lanetan, 20ren bat gazte arituko dira irailaren bigarren hamabostaldian.



Kale Nagusiko 16, 18, 20 eta 22ko fatxadak berrituko dira.

EHNE sindikatuak eta Mendiko Artzantza Lan taldearen eskutik 'Mendia eta abeltzaintza uztarrarian' jardunaldiak Ordizian, irailaren 6an eta 7an

Ordiziako udaletxeko aretoan, irailaren 6an eta 7an 'Mendia eta abeltzaintza uztarrarian' jardunaldiak izango dira. EHNE sindikatuak eta Mendiko Artzantza Lan taldeak antolatuta dute hitzaldi sorta hau.

EHNE sindikatura jo dugu jardunaldion filosofiaren berri jakin nahian: "Aralar, Aloña, Izarraitz, Jaizkibel, Aiako Harriak, Araba eta Gipuzkoako Partzuergoak, Gipuzkoako herrialde txikia izanik, artzain eremu garrantzizko bilakatzen da oraindik, orokorrean abeltzaintzak behera egin badu ere. Gure mendien argazkiak ere aldatuta nabarmena izan du azken denbora honetan. Pinuak eta oteak edo sastrakak bereganatu ditu Gipuzkoako mendi lepo eta bizkar ugari. Mendia eta abereen arteko hartueman hau bihurtu zaigu hizpide, ganaduzaleok lautadetakoa lur eremuen galtzeak eta

mendien zikintzeak jasaten ari garen eraldaketa honetan".

EHNE sindikatuko enutzet, "lur edo mendi publikoen inguruan ezinbesteko zaigu hitz egin ezezik aurrera begirako neurri orekatu eta uztargarriak aurkitzea. Gure ikuspegitik derrigorrezko zaigu mendiak abereekiko eta abereek mendiarekiko duten lotura hori gizarteratu eta bermatzea. Beti ere kalitatezko ingurugiro eta baldintza duinak aldarrikatuaz, hau ezinbesteko bezain garrantzitsua baita gure abeltzaintzaren biziraupenerako. Euskal Herriko txoko, larre eta mendien kalitate eta edertasunean oinarritzen da abeltzaintza. Gure parajeen biziraute, kulturaren errotze eta bioaniztasunaren ziurtasunerako gizarite osoak uler eta zaindu beharko lukeen altxorra dugu abeltzaintza."



Egitaraua

"Mendiarentzat abeltzaintza beharrezkoa den bezala abeltzaintzarentzat ezinbestekoa da mendia"

Irailak 6, ostirala: Mendiarentzat abeltzaintza

Hitzaldiak:

15:30-16:30: 'Abeltzaintza eta Mendia Arkeologikoki'.

16:30-17:00: Eztabaida.

17:00-18:30: 'Mendiaren emankortasun Iraunkorra'.

18:30-19:30: Eztabaida.

Irailak 7, larunbata: Abeltzaintzarentzat mendia

Hitzaldiak:

10:00-11:30: 'Mendia eta elikaduraren Kalitatea'

12:00-13:00: 'Mendiko Artzantza Gipuzkoan'

13:00: Bukaera ekitaldia.

Ondoren: Gazta kata

AMEB

Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka,9 LAZKAO

Donostiako enpresa batek ondoko lanpostua bete behar du:

KOMERTZIALA (73 erref.)

PUBLIZITATE SALMENTAN aritzeko DEBALDEAN, GOIERRIN eta DONOSTIALDEAN

ESKAITZEN DA:

- Lan kontratu laborala, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata finko interesgarria + Komisioa.
- Bezero zerrenda.
- Formakuntza, enpresaren kontu.

ESKATZEN DA:

- EUSKARAZ JAKITEA EZINBESTEKOA DA.
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia.
- Eskualdean bizitzea.
- Autoa izatea.

INTERESATUEK, CURRIKULUM ZEHATZA BIDALI ARGAZKI BERRI BATEKIN, IRAILAREN 11 BAINO LEHEN, HELBIDE HONETARA:

1887 Posta-kutxa / DONOSTIA



Ordiziako Tabernarien Elkartea

*Zai zoriontsuak
guztioi!*

O I A N G U
T A B E R N A
❖ ❖ ❖

ETXETXO
TABERNA



MIAMI
kafetegia



Martínez
Jatetxea



OLANO
TABERNA



ALDASORO
Taberna - Jatetxea



2002-2003

EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZEA, ALFABETATZEA eta EGA
Ordutegi zabala
Beka sistema

Ikasketa bereziak eskariei egokituak

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

Norentzat:

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia

Irailaren 2tik 20ra

Informazio gehiago Udal Euskaltegian

Ez utzi geroko
Ez utzi geroko
Ez utzi geroko
Ez utzi geroko
Ez utzi geroko
Ez utzi geroko

MATRIKULATU ORAIN!



**BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA**

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a
☎ 943 028 100 BEASAIN



hilean

euro

1

Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik

ZINEA

ORDIZIA

'Toda la verdad'

Ostirala, 6: 22:15.
Larunbata, 7: 22:15.
Igandea, 8: 19:30 - 22:15.
Astelehena, 9: 19:30.

'Ice age, la edad de hielo'

Larunbata, 7: 19:30.
Igandea, 8: 16:45.

musika

ORDIZIA:

Irailak 7, Euskal herri-musika kontzertua Juan Mari Beltranen eskutik, Plaza Nagusian, 22:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Irailak 7-8: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.
Irailak 14-15: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

dantzak

BEASAIN:

Irailak 14, Mallorkako 'Baila y canta' dantza taldea, 19:30ean, Loinazko San Martin plazan.

ORDIZIA:

Irailak 6, Donostiako Eskola dantza taldea, Plaza Nagusian, 22:30ean.

Irailak 11, Alkartasuna-Ohiaka taldea, herriko kaxkoan, 19:00etatik aurrera.

Irailak 13, Mallorkako Bonanyko Villafrancako 'Villafranca Canta y Baila' dantza taldea, 22:30ean, Plaza Nagusian.

hitzaldiak

ZERAIN:

Irailak 16, 'Euskal izendeiturak', Mikel Zalbideren eskutik, Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 17, 'Zerain.com mundura zabaltzen', Zerain Dezagun Fundazioaren eskutik, Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 18, 'Eguraldiaren gora beherak', Pello Zabala-ren eskutik, Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 19, 'Ilargiaren eragina landaretan', Xabi Aki-zuren eskutik, Kultur etxean, 20:30ean.

ORDIZIA:

Irailak 14, Bertso-trama Herri Antzokian: 'Ordiziako Euskal Jaietako perian'. Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu eta Jon Maia. Gi-daria: Josu Goikoetxea.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 6tik 27ra arte, M. Angel De la Cruzen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Irailaren 29ra arte, Ars Lignaerakusketa, Igartza jauregian.

ORDIZIA:

Irailaren 6tik aurrera, Serge Fudji artistaren erakusketa, Barrenan.

bertsoak

BEASAIN:

Irailak 8, Aitor Sarriegi, Iker Zubeldia, Iban Urdangarin, Joxe Munduate eta Ekaitz Goikoetxea, 19:30ean, Loinazpe ikaste-txean.


ZEGAMA:

Astebukaeretan, Ehungintza tailerraren erakusketa. Ordu-tegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

2002-2003 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK	MATRIKULA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gaeuz	Irailean goizez eta arratsaldez	Euskalduntze Alfabetatze Autoikaskuntza EGA

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.



INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Maria 4 - 2.ezkerra ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

IKASTEK AKADEMIA 2002-2003 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluko, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknika
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmena
- * Idazmena
- * Testu komentaketa
- * Matematika
- * Logika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

ikastekakademia@latinmail.com

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Idiazabalen etxebizitza salgai, garajearekin. 605735042.
- ➔ Etxebizitza salgai Itsasondon. 3 logela. Ganbara. 943674713.
- ➔ Etxebizitza salgai Beasainen. 3 logela. Baratza. Plazatik minutu batera. 943885751.
- ➔ Beasainen pisua salgai. Berritzeko. 605772243.
- ➔ Ordizian etxebizitza salgai, Altamira kalean, estadio ondoan. 646246736.
- ➔ Ordizian etxebizitza salgai. 115 m². Duplexa. 3 logela, 30 m²-ko egongela, sukaldea eta 2 komun. 180.000 euro inguru. 605772822.
- ➔ Antzuolan, eraikitzen ari diren etxe adosatua salgai. 300 m². 657732833.

konpartitu

- ➔ Leioan pisua osatzeko pertsona bat behar da. 652715314.
- ➔ Leioan, beste neska batzuekin pisua konpartitzeko gela baten bila nabil. Ixiar. 943084723.
- ➔ Pisukide bat behar dugu Iruñean. Unibertsitatetik gertu. Izaskun. 653704551.
- ➔ Bi neska euskaldun behar dira Gasteizen pisua osatzeko. Pisu berria, berogailuarekin. Unibertsitatetik 5 minutura. 943800238 - 696302297.

errentan eman

- ➔ Ordizian, herri erdian, pisua alokatzen da. 943882928.
- ➔ Aiegin, Lizarratik kilometro batera, irailetik ekainera, pisua alokatzen da. 3 logela, berogailua, 2 autorentzako garajea. Dena irekia eta ikusmira onekin. 943884969 - 655722341.

- ➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948533981.

Lokalak

alokairuan hartu

- ➔ Ormaiztegin bildegia alokatu nahi dut. 943889900.

Pabilioia

salgai

- ➔ Beasaingo Katea auzoan (17. poligonoa) pabilioia salgai. 170 m² eta entreplanta. Aldagelak eta elektrizitatea. Altuera ona. 943027065.

Animaliak

salgai

- ➔ Hamar ardi eta bi ahari salgai. Bere kupoarekin. 651703224 - 943160479.
- ➔ Euganiel Breton arrazako txakurkumeak salgai. 652753572.
- ➔ Setter arrazako txakurkumeak salgai. Martxoaren 30ean jaioak. Ehizerako irrika eta parada ikustekoak. Basoan heziak. 943801806 - 656751603.

opari

- ➔ Txakurkumeak opari. Hilabete ingurukoak. 943800084 - 615783362 (Bixente-Karmele). Eguerdia edo gauetan deitu.


Ibilgailuak

salgai

- ➔ Combo Tour furgoneta salgai. 1700 diesel. SS-AX. 943801474 - 6392850.
- ➔ Renault Super 5 autoa salgai. SS-W. Merkea. 943160013.
- ➔ BMW 325 TD salgai. 4 urte. Airbag eta abs. Trakzio kontrola. Klimatizatu digital independentea. 653727455.
- ➔ Derbi Senda-R 2000 motorra salgai. Egoera oso onean. 650250016.
- ➔ Yamaha FZR 1000 Exup motorra salgai. 95. urtekoa. 646308919.
- ➔ Mercedes Vito furgoneta salgai. Lo egiteko ekipatua. 629372199.
- ➔ Quad Yamaha warrior 350 motorra salgai. 4 gurpilekoa. 98. urtekoa. 943187585 - 943801811.

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
 ☎ 945 02 75 58 Faxa: 945 02 79 59
 San Inazio, 5 BEASAIN

Iraila
596 Euro
 Bilbo-La Havana-Bilbo
 Gehienez 45 egun
 Hirigoinen, 12 LAZKAO
 Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
 e-posta: algoz@wanadoo.es





GOI-ETXE
s.a.

Filipineta, 13 - behea
 ORDIZIA
 ☎ 943 88 49 50

ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENENKO ERAIKUNTZAK:
 ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

➡ Suzuki RGV 250 motorra salgai. Konpondu berria. Prezio onean. 607088769.

➡ Yamaha XT-600 Trail motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 943180461.

Bestelakoak

salgai

➡ Sony markako Walkman erosi berria salgai. Dijitala da eta autorebersea egoera oso onean. 36 euro. 943027516. Gaez deitu.

➡ Dumperra salgai. Arranke elektrikoa eta bolketek hidraulikoa giratorioa. Oso egoera onean eta merke. 943885831.

➡ Zumezko altzariak salgai. Egongelarako edo terrazarako. 943724272.

➡ Karabana salgai. Oso egoera onean. Abantzearekin. 943806123.

➡ 7 oktadun Furs-tein etxeko pianoa salgai. Neurriak: 1380x500x1030 mm. 943086610.

➡ Bixkientzako kotxetilla salgai, bere gehigarri guztiak. 943162384 (Labores Otea).

➡ Erriberriko edo Oliteko kanpinean dagoen movilhoma-a salgai. 6.000 euro. Aseguratua. 943884040.

➡ Esne tankea salgai. Alza Laval etxekoa. 200 litrokoa. 943884502 (eguerdi edo iluntzetan deitu).

➡ TSW Evo-r llantak salgai. 16 ". Opel As-trarenak. Brigstone 205-50-16 kubiartak ere bai. 943187585 - 943801811.

Negozioa

salgai/alokairuan

➡ Liburudenda alokatzen edo saltzen da Beasainen. 616698236.

Lana

eskaerak

➡ Ormaiztegiko jate-txe batean zerbitzaria behar da. 943882893.

➡ Gaintzako taberna batean neska behar da asteburuatarako. 943886243.

➡ Beasainen, Foru ka-lean, neska edo emaku-me euskalduna behar da umeekin lagundu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik ostiralera. 8:00etatik 11:00etara. 615795480.

➡ Altzagan pertsona bat behar da fregadera-ko lanak egiteko larun-bat gauean eta igande batzutan. 615700408.

➡ Emakume edo neska bat behar da Lazka-on, goizez 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 625704453. Arratsaldetan deitu.

➡ Neska edo emaku-me euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. 943880845.

➡ Emakume bat behar da, 3 ume zaintzeko, irailetik aurrera, arratsaldetan. 605721107. 16:00etatik 20:00etara deitu.

➡ Idiazabalen emaku-me edo neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 678724785.

➡ Pertsona euskalduna behar da, interna egoeran. 943651332 - 658707200.

➡ Astebukaeretan lan egiteko neska zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada, hobe. Kotxea beharrezkoa. 943880044.

➡ Beasainen neska edo emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 943086590.

➡ Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko. Esperientziaduna bada hobe. 943886577 - 943160205.

eskaintzak

➡ Hormigoizko eta egurrezko egiturak egiten dira. 629449460.

➡ Uztailean lan egingo nuke, umeak zaindu, etxeko lanak egin edo denda batean. 943886263.

➡ 18 urteko neska umeak zaindu (esperientziaduna) edo denda batean saltzaile gisa lan egingo luke. 653742370.

➡ 19 urteko mutila, edozein lanetarako eskaintzen da, udan. 637781384.

➡ Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 606598100.



**LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia**

**2002/2003
IKASTURTEA**

• IKASTAROAK URTE OSOAN:

✓ **BARNETEGIA:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
Familia euskaldunetan egoteko aukera

✓ **BESTE BATZUK:** 2 ordu egunean
4 ordu astean (larunbatetan)
ikastaro bereziak
bakarkako ikastaroak

HABEren dirulaguntzaz.

• MAILA GUZTIAK

DEITU ETA EMAN IZENA!

☎ 943 88 92 31 - 943 88 92 32

lazkao@maizpide.com

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea

☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO



Ordiziako futbol txapelketa 1980an

1980ko ekainean ateratako argazkian Ordiziako futbol txapelketako irabazlea izan zen Txanti taldea ageri da.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Luis M^a Gonzalez, Jose M^a Garmendia "Ferre", Juan A. Irastorza, Angel Etxezarreta, Juan Etxeberria, Jose Felix Sarasola, Jose M^a Garmendia "Kik", Felix Apalategi, Andoni Lopetegi eta Jesus M^a Moreno.

Pikotxean, ezkerretik eskuinera: Jesus M^a Gaztañaga, Insausti, Aierbe, Antton Armendariz, Juan Ramon Gaztañaga, Jose Antonio Peña eta Josetxo Marin.

Jai zoriontsuak denoi!



**GOITGI
OKINDEGIA**
Ogigintzan onenak!

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Etxezarreta z/g ORDIZIA ☎ 943 160501

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak



Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA



**MUJICA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

RUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behea
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

UDAKO ORDUTEGIA:
9:00etatik 15:00etara
Abuztuaren 10etik 18ra
oporrenegatik itxita

ORDIZIA
Jai zoriontsuak guztioi!

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

Jai zoriontsuak!

X kel

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600

ORDIZIA

Migdaläla

JOSEP FONT - TANIA DEL VIEJO

OILILY - CELIA VELA - VICTORIO Y LUCCHINO

LOLA MENTO - DEVOTA Y LOMBA - IKKS

VUE SUR MER - TERRE & MER - LACOSTE

MACHU PICHU - REDWOOL - CALVIN KLEIN

ARMANI - DANIEL ESPINOSA - MICHAL NEGRIN - CADENA LA

MAGLIA - LOLLIPOPS - FLAMENCO



hau da gure publizitaterik hoberena



publiadk